



# ARGIA



INSTITUZIOEK ENTZUNGOR SEGI ARREN

## *Inor ez da ilegala*

Mbolo-ARGIA proiektuak bost urte

24-29. orrialdeak

**Arazoaren parean,  
birziklapena  
ez da nahikoa**

12 | PLASTIKO KUTSADURA



**"Gazteen hautua  
da hizkuntza ez  
hautatzea"**

14 | JAIME ALTUNA

**Lehenengo  
mugikorra,  
noiz eta nola?**

GIDA OPARI



#2849 | 2023 / 12 / 03 | 4,00 €

# Nork kontatzen dizu mundua?

Egin  ARGIAkoa

[argia.eus/eginargiakoa](http://argia.eus/eginargiakoa)



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

## Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | MIKEL BASABE
- 21 | ARANTZA GUTIÉRREZ
- 22 | SUKAR HORIA

## Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:  
ALAINA AGIRRE
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA



### 30 | EUSKARA NERABEZAROAN

Jaime Altunak tesia egin du eta Asier Basurtorekin izandako elkarrizketan, honela dio Altunak: "Gazteen artean hizkuntza normala hizkuntza nahasia dela esaten dute. Euskara eta gaztelania nagusiki, eta ingelesa beste maila batean. (...) Bat aukeratu eta hori bakarrik erabiltzek markak ideologikoa ematen du. Beraz, hautua da ez hautatzea. Ondorioztatu dut badela helduei esateko modu bat: "Zuek argi duzuen arte ez eskatu guri erabakitze".

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

**Birziklapenean baino, erabilera murriztean datza plastiko kutsaduraren konponbidea**

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | AUXTIN ZAMORA

**"Sentitu bezala egin dut ene bidea, barnean nuen oldarrarekin"**

Miel A. Elustondo

24 | MIGRAZIOA

**Bost urte Inor ez da ilegala aldarrikatzen**

Mikel Garcia

34 | NAZIOARTEA | HOUDA AKRIKEZ

**"Larrialdi humanitarioa da, eta katastrofea ez da naturala, administrazioak eragin du"**

Irati Irazusta

44 | KULTURA

**Katakraken disko bikoitza**

Gorka Peñagarikano

### Jabetza

 Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

Amaita Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Mattin Azpiroz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandiandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramanentzat soilik.


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



Ez zaitugu  
anatzuke,  
Egingo dugu  
Ardur



# Zaintza ala indarkeria

Matxismo armatuak aurten lau emakume eta ume bat hil ditu Euskal Herrian. Lourdes del Hoyo Orion, Maialen Mazón Gasteizen –haurdun zegoen eta babes neurriek huts egin zuten–, Bego, Zhen Jiang Iruñean eta Mateo –7 urtekoa, bere aitak Urbasan amildegitik bota zuen amari min emateko–. Horiek dira Hego Euskal Herrian izandako kasurik gordinenak, beste 6.448 erasoren artean –irailera arte–. Indarkeria horrek askotariko adierazpenak ditu, baina larritasun maila ezberdinetatik harago, eraso guztiek laguntzen dute euskal herritar orenen bizitza zeharkatzen duen eredia finkatzen: sistema patriarkal klasista, arrazista eta krudela. Ostegunean, emakumeek eta pribilegiatuok aukera izango dugu egiturazko aldaketa eskatzeko sistema biolento honen zutabeetako batean: zaintza. Oinarrizko premia unibertsala izanik ere, merkatu kapitalistaren eta pribatizazioaren eskuetan dago. Emakumeak, eta bereziki migratuak, diskriminatzen diren eremua izateari utzi behar dio, etxetik hasita.

📖 Liburu bat irakurtzen ari zela, eserleku horretan hil zuten Lourdes del Hoyo. Oriotarrek ingurua apaindu dute bera gogoratzeko. **GORKA RUBIO / FOKU**

 **AXIER LOPEZ**

# “Palestinako gatazkan” azken 35 urteetan hil diren guztien %90 palestinarrak dira

 AXIER LOPEZ

1988tik 26.521 palestinarrak hil ditu Israelek, aldiz hildako israeldarrak 3.027 izan dira. Hau da, 1988 eta 2023 artean, ia bederatzi aldiz palestinarrak gehiago hil dira Israelgo apartheidaren eta kolonialismoaren egiturazko indarkeriaren ondorioz. 2022an, bederatzi aldiz palestinarrak gehiago hil zituzten. 2021ean 29 aldiz gehiago ziren. Eta egunotako genozidioaren erdian, izugarri handitu da alde.

**GAZA**  
**46 EGUN**  
**BONBA AZPIAN**  
(2023, urr. 7 – aza. 22)

**14.191**  
**PALESTINARRAK**  
**HILDA**

**5.600**  
**UME**  
**HILDA**

**1.600.000**  
**LAGUN**  
**DESPLAZATUAK**

**260.000**  
**ETXEBIZITZA**  
**KALTETUAK EDO**  
**SUNTSITUAK**

**135**  
**OSASUN-ETXE**  
**ERASOTUAK**

**60**  
**KAZETARI**  
**HILDA**

**GERRA**  
**KRIMENENGATIK**  
**ZERO**  
**ZIGOR**

## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Telegram taldeak



UXUE APAOLAZA LARREA

**E**makumeoi zaintzak bururatzen zaizkigu etengabe, berezko sormen itzela daukagu, hain trebatuta gaude, batzuetan ohartu ere ez garela egiten, “ostras, hau ere zaintzea da”, “ostras, agian, hogeita hamar pertsona zaintzea ez da jasangarria”, “ostras...”; ez, azken ostras hori ez zaigu bururatzen, azken ostras horrek geure burua zaintzeko esango ligu keelako. Gure grebetan umeak zaintzen dizkigute, ondo, batzuentzat ez dago beste modurik noizean behin ama ez izateko, izateko militante, irakasle edo tabernako goizeko lauretako *putazorra*. Baina antolatu behar genituzke, geure buruak zaintzeko, alu jateak, koktelak (bloody mary bat niretzat), eta, azken aldian buruan darabilkit, feministak molestetzen dituzten gizontxoiei palizak emateko Telegram taldeak.

Zergatik Telegram talde horiek? Bada, emakumeok geure burua zaintzeko dugun modu eraginkorrena feministak zaintzea delako; elkar zaintzea, oro har, baina feministak batez ere. Eta gutako askok umeak ditugu, eta gutxi ateratzen gara kalera, eta ez gara egongo azken uneko matxitoari bururatzen zaionean miresten dugun herriko feminista bati “kontuz”-en bat esatea, bere herriko festetan intimidatzea, beldurra sentiaraztea... Agian, psikologoei deitzeari utzi behar zaio; izan ere, geurea da psikologo bidez konpondu nahi den botere borroka bakarra (psikologoak biktimentzat, psikologoak eratsotzaileei jarraipenak egiteko). Militantzia mota bati brageta itxi zitzaiola uste genuenean, zakil batzuk irristatzen ari dira berriro zirrikituren batetik, eta bateko eta besteko zakilak dantzan hasten direnean, azpian harrapatzen gaituzte beti. Jaso zakilak berriro, edo neskak, Telegram taldeak sortu beharko ditugu, eta psikologoak despeditu. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

“HAU EXEK DIRA  
NIRE KOSTA LEGEAK...”

...BAINA EUSKO JAURLARITZAREN  
ETA GUGGENHEIM FUNDAZIOAREN  
GUSTUKOAK EZ BADIRA,  
BADITUT BESTE BATZUK”

2023/11/23AN, ESPANIako  
TRANSIZIO Ekologikoko  
MINISTERIOAK.



## MOTZEAN

Preso bat aurkitu dute hilik berriro ere Zaballa espetxean. Salhaketa Araba elkartearen arabera, 47 urteko jatorri hegoamerikarreko gizonetako da hildakoa, eta bere burua urkatu du. Jaurlaritzak espetxeen eskumena hartu zuenetik Arabako espetxean hiltzen den bigarren presoa da. “Euskal espetxe ereduak huts egiten du”.

Muruetako itsas-lehorreko eremu publikoaren muga 100 metrotik 20ra laburtzea onartu du Espainiako Kostaldeko Agintaritzak, Guggenheim Urdaibai eraikitze bidea zabalduz.

Eusko Jaurlaritzak orain dio AHT Bilbora 2033an iritsiko dela. 226,52 milioiko aurrekontuarekin, Jaurlaritzak arduratuko da Bilboko sarrerako eraikuntza proiektua idazteaz.

Ameskoa ibarrako euskaraz idatzitako testu zahar bat agertu da. Eulateko apez batek idatzi zuen, eta urregorria da Ameskoako XVIII. eta XIX. mendeko euskara nolakoa zen jakiteko.

“Arbolaren besta” egin dute lehen aldiz Biriatur, fruitu arbolak ardatz. Arbola landareak eta arboletatik datozen produktuak erosteko aukera izan da, tokiko ekoizleen azokan.

# Ez dugu nahi



ULA IRURETAGOIENA

**H**irian badira hutsik gelditzen diren lurrak. Publikoak baldin badira ez dute hesirik izango, eta ingurunean bizi direnek erabilgarritasuna topatuko diete, aktibitateak egiteaz aparte, hutsuneak arnasketa egiten duelako hiriaren ehunduraren, parke bat izan gabe. Egunerokoak osatzen duen joan-etorriak leku hutsaren eszenatokia barneratzeke ematen du, eta horrela eraikitzen da gure oroimen sentsitiboan testuinguru identifikagarri bat.

Hesi bat agertu da Donostiako Manteoko hiri-hutsunean. Hutsunea okupatzera doaz. Basque Culinary Center eraikina egitera doaz. Ai, arkitektura mehatxu bat denean. Auzoan bizi diren zenbatak hartuko zuten atsekabea, gorputzaldi behe-rakada bat sentitzera iritsi arte, gurea egin dugun eta nolabait gure parte den zer edo zer aldatzera doalako betiko. Bortizkeria gorpuzten da, ez dut nahi esan, eta kasurik egiten ez digutenean bezalaxe. Kanpotik eta urrutitik eta hutsunea gutxitan zapaldu eta inguratu duenaren erabaki bat gauzatzeko da, hutsunea hutsune izateko defendatzen dutenen ahotsari entzungor. Distantziatik hartu behar dira horrelako erabakiak, gerrate batean hatz erakuslearekin bonbaren kokapena mapan seinalatzen denean bezalaxe.

Bizkaiko Urdaibain Guggenheim eraikin berriaren kontrako manifestaldian izan zirenen artean antzerako sentsazio bat gorpuztuko zen, Sánchezek gobernu osatu eta astebetara Espainiako ministerioak uholdegarritasun egoera aldatu duenean Muruetan eraiki ahal izateko.

Eraiki, suntsitu eta berriz eraiki zikloek osatzen dute hiri eta lurraldeen historia, eta azpiegitura berrien kontrako mugimenduak ziklo horien ondotik sortzen dira. Hirigintzako pentsalari batzuek diote hiriaren etorkizuna suntsiketaren oinarritu beharko dela, hutsuneak eginaz eta beste modu batean egiteko aukera zabalduz, eraisketaren materialak birziklatuz eta eraikuntza prozesuak testuingurua osatzen duen ekosistemako eragileekin batera diseinatu. Baina gure lurraldea ez da abangoardia. ●



## Lanbide guztiek badute bere zaintza

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

**B**adira erabat zaintzakoak diren lanak. Horiek gizon eta emakumeen artean banatu behar genituzke eta kito. Baina bai zera, gizarte honetan badirudi lehenago izango dela posible zaintza publiko indartsu bat sortzea (unibertsala eta lan baldintza onetan, baina emakumeek egindakoa), gizonen zaintzaren ardurari eustea baino. Zaintza sistema publiko horretan langileen erdia gizonak izatea eskatuko nuke, kupoa, alegia, hauteskunde zerrendak osatzerakoan dagoen bezala. Agian zaintza lanak lehenago duinduko lirarteke horrela eta gure imajinarioan aldaketa handia ekarriko luke.

Zaintzaz ari garenean beti hitz egiten dugu erabat zaintzakoak diren lanez, baina nire ustez beharrezkoa da langile guztiek izatea nor bere lanetik herritarrengan burutzen duen zaintzaren kontzientzia. Izan ere, zaintza bizitza osoan behar baitugu, eta batez ere, umeak eta helduak zaintzen ari garen garaietan behar dugu gu ere zainduak izatea. Bizitza osoan zehar eta egunerokoan gizarteak eusten edo zaintzen gaitu: bata besteari gogorki lotuta egotea komeni. Hamaika adibide etorriko zaigu bakoitzari burura: zure gabeziak beharrez zure ahalak ikusten dituen irakaslea; mugikorrez burutzea lortu ez duzun transferentzia zure ondoan jarrita egiten erakusten dizun bankuko bulego-langilea; izenez deitzen zaituen dendaria; burua garbitu bitartean masaje gozo bat ematen dizun eta berarekin bizitzako gorabeherez hizketan aritzen zaren ile-apaintzailea; menua zure beharretara egokitzen dizun tabernaria... “Zer behar duzu? Zuri laguntzeko nago” jarrera dute horiek denek eta gutako bakoitzaren onena ateratzen dute; norberari ere besteak zaintzeko jarrera eragiten digute.

Tamalez, gero eta ohituago gaude zaintzen ez duten lanpostu eta langileen jarreretara: ikasleen galderei “hori jakin beharko zenuke” erantzun eta azalpenik gabe uzten dituzten irakasleetara; zure neurriko galtzengatik galdetu eta “dagoen guztia apalategietan dago” erantzuten dizuten saltzaileetara; “eragiketa hori makinan egin behar duzu” bideratzen zaituzten bankuko bulego-langileetara; “hitzordua internetez hartu behar duzu” altzairuzko bunker egin den administratzailea; presaka eta begietara begiratu gabe zerbitzatzen duen tabernarira; aurrez aurre artatzen ez zaituzten osasun langileetara...

Zaintza pertsonok egiten dugu. Zaintzen ez duen langilea makina batek ordezkatzeko modukoa da. Gero eta lan gehiagotan ordezkatu dituzte makinek herritarrei arreta ematen zieten lanpostuak. Eta bide horretan galduz goaz bizitza osoan zainduak izateko eskubidea. ●



## Non egongo gara?

**BARRUAN:** Artekale 17, 18, 19, 20 eta 21 (informazio gunearen ondoan).

**KANPOAN:** Andra Mari elizpean Inor ez da ilegala gunea jarriko da, arkupearen albo batean.

## Noiz egongo dira egileak ARGIaren mahaian?

- Jakoba Errekondo: egunero eta kontsultategia.
- Garbiñe Larrea: egunero.
- *Hizki-Piztiren* egileak: abenduak 6.
- Josebe Blanco: abenduak 7 arratsaldez eta abenduak 9.
- Koldo Izagirre: abenduak 9.
- Eli Pagola eta Maitane Gartzandia: abenduak 10.

## Aurkezpenak noiz dira?

- Abenduak 6, 11:00etan, Saguganbaran: *Hizki-Pizti*.  
Abenduak 7, 19:00etan, Ahotsenean: *Hausnarrean*.
- Abenduak 8, 15:30ean Talaian: Amillubi Baserria proiektua.
- Abenduak 8, 16:00etan, Talaian: *Sendabelarrek dakitena*.
- Abenduak 8, 16:30ean, Talaian: Ilargiaren egutegia.
- Abenduak 9, 15:30ean, Talaian: *Zaldi bat ihes garrezko zelaian*.
- Abenduak 9, 17:30ean, Talaian: Ilargia eta landareak agenda.
- Abenduak 9, 18:00etan, Talaian: *Planeta prekarioan*.
- Abenduak 10, 11:00etan Talaian: *Ño!*

Informazio gehiago, Komunitatea atalean (42. orrialdean).

## “Oraingoz desalojoa geldiarazi dugu eta lurraren defentsan jarraituko dugu”

### OTXANTEGI HERRI LURRA

Proiektu ekologikoak lortu zuen gelditzea Ertzaintzak eta udaltzainek Otxandategi dorretxea husteko zuten asmoa. Helburua, Berangoko eraikin hori eta inguruko lur emankorrak “ez ditzala etxebizitza negoziok irentsi”.

2023-11-23



## “BAIONAKO EUSKARA PLAN BERRIARI ANBIZIOA FALTA ZAIO; EUSKARAREN ARLOAN BAIONA GIBELEAN GELDITZEN DA”

### JEAN-MARC ABADI

Bihar Baiona taldeko hautetsia eta Euskara batzordeko kidea.

KAZETA.EUS (2023-11-20)

“Ez da lekurik egongo erdibideko neurrientzat, epelkerientzat, ezta pixkanakako aldaketentzat ere”

### JAVIER MILEI

Argentinako presidente berria.

2023-11-20



# Pornografiaz



DIANA FRANCO

**A**urreko egunean, 10 urteko haur batek esan zidan bere eskolako helbide elektronikoaren pasahitza aldatu behar zuela, gurasoek bazekitelako, eta bere pribatutasuna zelatatu ahal zutelako. Ulertzen nuela esan nion, baina ohartarazi nion, eskolako arduradunek ere, naiz eta eurekin ez partekatu pasahitza, Interneten egiten zuen guztia zelatzeko aukera zutela. Hori honakoa erantzun zidan: la-sai, nik ez ditut gauza horiek ikusten.

Bi egun geroago, topaketa batean, pornografiara gaztetxoek egiten duten sarre-ra goiztiarraz hainbat jende euren ardura partekatzen hasi ziren. Gai honek guraso asko arduratuta ditu. Nerabeak, beren gailuetan, eta duten jakin-min naturalak bultzatuta, egokiak ez diren eduki ugari-tara heldu daitezke, tartean pornografi-koak. Gurasoak arduratuta daude gazteak pornografiara goizegi sartu eta sexu harremanen inguruan irudi oker bat sortu dezaketelako. Dirudenez, eduki horiek jarraitzeaz gain, sortzeko eta banatzeko digitalizazioak berak ematen dituen aukerak ere erabiltzen dituzte.

Donestecheko Onak analogia interesgarri bat aipatzen du mugikorren eta autoen inguruan: zergatik behar dugu gidabaimena autoa hartzeko, baina mugikorra inongo irizpide zehatzik gabe ematen digute?

Pixkanaka goaz gizartean zenbait ideia geureganatzen, haur eta nerabeen bizitzak hobetze aldera: tratu ona, herriak haurrentzako bizigarriagoak izan daitezkeen birmoldaketa arkitektonikoak... Hobekuntza horien erroan dago haurren-ganakoa errespetua handitzea, nagusi eta haurren arteko botere harremanetan eragitea. Eremu digitalaren ezaugarriak direla eta, ordea, oraindik ez dugu bide bat argi ikusten errealitate digitala eraldatzeko, eta momentuz, haurrentzako burbui-lak sortzen ari gara, aplikazioen bidez gurasoek edukien gaineko kontrola izateko.

Nik bide hori ez dut argi, ez dut bide bakarra ikusten. Argi dudan gauza bakarra da errealitate gogor hau bizitzea tokatu zaiela, eta eurekin hitz egitea dela behar-bada eskura dugun balia biderik onena. ●



David Arakhmiak Ukrainako telebistan azalpenak eman ditu.

## Ukrainari nola egin zioten presio bakea ez sinatzeko

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

**G**auza jakina zen 2022ko apirilean Ukrainak uko egin ziola bake ituna sinatzeari Errusiarekin. Putinek Afrikako delegazioaren aurrean erakutsi zuen Istanbulen proposatutako bake hitzarmena, 18 artikuluz osatua. Gudak jarraitu du, eta orain Mendebaldeko herrialdeak Ukrainari presio egiten ari dira bakea sina dezan Errusiarekin.

Aurretik ere bateko eta besteko diplomatikoez adierazia zuten publikoki Mendebaldeak presio egin ziola Ukrainari itun hura sina ez zezan. Berrikuntza zera da, azaro amaiera honetan Ukrainako ofizialak ere hasi direla bake negoziazio haietan zer gertatu zen publikoki kontatzen.

David Arakhmia Ukrainako delegazioko buru izan zen Bielorrusian eta Turkian egindako bake elkarriketetan, eta Ukrainako 1+1 telebista katean elkarriketatu dute. Zelenskyren alderdiko legebiltzarreko burua da egun. Berak dio Errusiak guda amaitzea proposatu zuela Ukrainak neutraltasuna mantentzen bazuen, eta hori zela negoziazioetako puntu nagusia. Ondorengo dio, hitzez hitz: "Errusiak azken momentura arte espero zuen lortuko zuela guk neutraltasuna onartuko genuen dokumentua adostea. Hori zen beretzat punturik garrantzitsuena. Guda amaitzeko prest zeuden hori onartzen bagenuen -bere garaian

Finlandiak egin zuen bezala-, neutraltasuna, eta gure konpromisoa ez ginela NATO-n sartuko. Hori zen puntu garrantzitsuena. Gainontzeko guztia erretorika hutsa zen desnazifikazioaz, errusiar hitzunez...".

Kazetariak galdetzen dio ea Ukrainak zergatik ez zuen onartu puntu hori. Hemen bere erantzuna: "Lehenik eta behin, Konstituzioa aldatu beharko genukeen, NATO-n sartu nahi dugula bertan jaso baitago. Bigarrenik, ez ginen errusiarrez fio. Hori bakarrik egin ahal izango genukeen segurtasun berme batzuekin. Ezin genuen zerbait sinatu, hortik atera, denak erlaxatu, eta beraiek [gu inbaditu] oraindik eta prestatuago (...). Azkenik, Istanbuletik itzuli gine-nean, Boris Johnson etorri zen Kievera eta esan zigun: ez dugu ezer sinatuko haiekin, egin dezagun gerra".

Honek agerian uzten du berriro ere Mendebaldeko herrialdeek guda honetan izan duten ardura. Ehunka milaka ukrainar hil ditu Errusiak frontean, AEBek eta Europar Batasunak Errusia "ahuldu" nahi zutelako, AEBetako Defentsa idazkariak 2022ko apirilean esan zuen moduan. Orain, 20 hilabete geroago, Mendebaldeak presio egiten ari zaio Ukrainari onar dezan lehen ez sinatzea gomendatu zion hitzarmena, ezin dutelako irabaziko ez duten guda bat denboran luze mantendu. ●

# A eredutik D eredura igaroko da Gasteizko Judimendi eskola

MIKEL GARCIA IDIAKEZ JUDIMENDI ESKOLA

**A**ereduko eskola D ereduko bihurtuko dute Gasteizko Judimendi auzoan, familia erdaldunen seme-alabei euskaraz ikasteko aukera emateko eta familia euskaradunak erakartzeko. "Estigmatizatuta dagoen eskola da eta buelta eman nahi diogu, auzo-eskolaren izaera berreskuratu nahi dugu, auzotarrek senti dezatela Judimendi haien eskola ere badela".

Haur eta Lehen hezkuntza eskaintzen dituen ikastetxe txikia da Judimendi, eta A eredukoa izanik, ikasle guztiak jatorri atzerritarreko familien seme-alabak edo etxean erdaraz bizi diren ijitoak dira, guraso euskaldunik ez baitago seme-alabak A ereduan matrikulatu nahi dituenik. Batzuetan, guraso erdaldunek uste dute euskarazko ereduan ez direla gai izango seme-alaba behar bezala laguntzeko (maiz damutu egiten dira ondoren, haurra euskaraz eskolatu ez izanagatik), eta beste asko, behin ikasturtea hasita iritsi direnak, zuzenean A ereduko ikastetxera bidali ditu Hezkuntza sailak, beste alternatibarik eman gabe.

Badira urte batzuk D eredura igarotzeko asmoa eztabaidatu dutela ikastetxean, Hezkuntza sailera ere deitu zuten, eta esan zieten klaustroak ezin zuela halako erabakirik hartu, informazioa ez zen garbia... eta iaz, aukera zabaldu zitzaizen: orain arte 3 urtetik aurrerako haurrak hartu ditu eskolak eta 2 urteko gela irekitzea eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari.



2 urteko gela irekitzeko, D eredua ezarri behar zuen ikastetxeak, "eta ametsa zena aukera erreal bihurtu zitzaigula ikusi genuen, justu nahi genuena eskaintzen zitzaigula; bozkatu eta erabaki genuen 2 urteko gelaren alde eta beraz D ereduaren alde egitea", kontatu digu Olarizu Lopez de Briñas irakasleak. D eredua 2 urteko mailan hasiko da, eta pixkanaka, urte batzuen buruan, maila guztiak hartuko ditu euskarazko murgiltze ereduak.

Auzoan lanketa egiten ari dira eta familia euskaradun batzuek Judimendin matrikulatuko dituzte haurrak; "familia militanteak dira, auzoko eskolaren alde egingo dutenak, eta uneotan hori behar dugu, gero beste familia batzuk motibatzeke". Gasteizko alde zaharrean, Ramón Bajo ikastetxe publikoak ere D eredurako aldaketa egin zuen duela urte batzuk eta garai hartan eskola horretako guraso zen Amelia Barquín hitzak gogoan ditu Lopez de Briñasek: "Ez espero lehenengo urtean familia euskaradun pila batek izena ematea, astiro dator aldaketa, 'halako

baldin badoa', 'zein lan ona egiten duten eskola horretan'... eta ahoz aho pixkanaka zabalduz doa aldeko giroa".

Ramón Bajoko esperientziatik zer jaso duten? "Batez ere transmititu dигute posible dela -dio Olarizu Lopez de Briñasek-. Aurrez ikastetxean zegoen ikasle profilak ez zuen alde egin, euskara ez zekitenak ez ziren baztertuak sentitu, eta euskaradun familiak pixkanaka-pixkanaka batzen joan ziren proiektura. Gakoa? Harremanak eta harrera asko zaintzea, urrats bakoitza ondo azaltzea".

Judimendi eskolak abantaila ugari dituela nabarmendu du irakasleak: ikastetxe txikia da (hainbat mailatan lerro bakarra du, ratio txikiak ditu eta harremana eta arreta pertsonalizatua goa bermatzen du horrek), belaunaldi arteko pedagogia dute txertatuta, auzoaren erdigunean kokatuta daude, auzoko zerbitzuak hurbil dituzte, parke handi bat dute ikastetxe ondoan, eta jolastokia ere berriki eraldatu dute, natura eta hezikideta oinarri hartuta. ●

365 egunez

euskaraz

bizi

nahi dut



# BIRZIKLAPENEAN BAINO, ERABILERA MURRIZTEAN DATZA PLASTIKO KUTSADURAREN KONPONBIDEA

Plastiko kutsadurari konponbideak aurkitu nahian, Kenyako hiriburuan bildu ziren 161 estatuko delegatuak, hainbat GKE eta industriaren sektoreko presio-taldeekin batera azaroaren 13tik 19ra. Negoziaketetan lehiatzen dira bi estatu multzo: bata, ekoizpena murriztearen aldekoa eta bertzea, horren ordez, birziklatzea sustatzearen aldekoa. Alta, birziklatzearen erabilera politikoak eta muga fisikoek erakusten digute lehen aukera baizik ez dela bideragarria.

 NICOLAS GOÑI

**P**lastikoz blai bihurtu zaigu biosfera: mikroplastikoak -5 mm baino gutxiagoko plastiko puska- itsasoak bete eta bertako ekosistemetan metatzeaz gain, hortik lurrinketarekin aineratu eta atmosferan aurkitzen dira ere, hainbat ekosistematan barreiatuz, hala Pirinioetan nola Artikoan. Kutsadura hori gure odolean eta gure burmuinean aurkitzen da, gure osasuna kaltetuz. Zaborra sortzen duen kate honen hasierak ere -petrokimikak- kutsadura sortzen du: oro har, plastikoa-ren ekoizpenak eta erabilerak berotegi efektuko gasen isurketen %3,4 sortzen zuten 2019an.

2000tik 2020ra plastiko ekoizpena bikoiztu da, munduan 460 milioi tona izateraino. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen arabera, gaur egundik 2060ra zabor plastiko hiru bikoiztu daiteke, baina gaur egun plastikoa %9 baizik ez da birziklatzen, gainontzekoa lurperatzen delarik, edo erretzen, edo ingurumenen barreiatzen.

Azken urteotan mikroplastikoen eraginaz ohartze globala zabaldu da, eta hainbat ekimen martxan jarri dira horri aurre egiteko. Horietarik bat azaroaren 13tik 19ra Nairobi (Kenya) antolatutako goi-bileran izan da. Bertan bildu ziren 161 estatuko 2.000 inguru delegatu, plastiko kutsaduraren aurkako munda mailako neurriak adosteko asmoz.

Bortz goi-bileren hirugarrena izan da Nairobi, eta bertan ageri da, oro har, negoziaketak bi talderen artean egituz direla.

## BI IKUSPEGI TALKAN: BIRZIKLATU EDO EKOIZPENA MURRIZTU

Alde batetik, hirurogei bat herrialde, Rwandak, Norvegiak, Kenyak eta Europar Batasunak bultzaturik, hitzarmen hertsagarri baten alde dira, plastikoa kontsumo eta ekoizpena murrizteko helburuarekin. Rwanda izan da, hain zuzen, plastikozko poltsak debekatu dituzten lehen estatuetakoa. Bertzalde, AEB, Saudi Arabia, Txina, Errusia eta India, kontsumo murriztu beharrean, zaborren kudeaketa eta birziklapena lehenesten dituztenak. Hainbat GKEren arabera, bigarren multzo hori aurrerapenak oztopatzen aritu zen. Fondation de la Mer ("Itsasoaren Fundazioa") erakundeko presidentea Sabine Roux de Bézieuxek dio estatu batzuek asko galtzeko luketeela ekoizpena murriztea adostuko balitz, plastiko ekoizten dutelako edo haien industriak eta bizimoduak plastiko asko kontsumitzen duelako.

Ontzi botagarriak petrolioaren sektoreak bultzatu zituen 1970eko hamarkadan, ordurarte berrerabiltzen ziren -nagusiki beirazko- ontzien ordez. Ontzi botagarriak hobe onartarazteko, birziklapena sustatu zuten -hitzetan bederen, praktikan dena birziklatzetik orain-

dik oso urrun baigaude-. Birziklatzeak ontziaren kostua eta ardura esternalizatzen ditu, partzialki edo osorik, kontsumitzaile eta erakunde publikoen gain.

Industriaren ahaleginez, 1970eko hamarkadatik hona zaborren kudeaketa norberaren ardura bihurtu da; nagusiki, ekoizpen prozesua ekuaziotik kenduz, eta dena birziklatuko ez zela hasieratik jakinik ere. *How Big Oil Misled The Public Into Believing Plastic Would Be Recycled* ("Petrolioaren sektoreak plastikoa birziklatuko zela nola sinestartarazi zion publikoari") erreportajearen Laura Sullivanek azaltzen duen bezala, AEBko Plastikoa Industriaren Elkarte-ko presidentea ohiak argi erran zuen: "Birziklatzeak funtzionatzen duela uste badu publikoak, ingurumenari buruzko kezka gutiago egonen da". Gaur egun, negoziaketetan joera horrek darrai, eta aurrerapenak oztopatzeko ahaleginetan orain dator "plastiko kredituen" proposamena: "karbono kreditu" famatuaren modura, birziklapenean inbertitzearen truke ekoizpenaren garapena baimenduko lukete kreditu horiek.

## BIRZIKLATZEA KONPONBIDE BALIAGARRIA OTE?

Birziklatzea erretzea baino praktika hobea denik ez da eztabaidagai, baina halere arazo asko ditu, lehena bere tasa apala delarik. Europar plastikoa gehien birziklatzen duten estatuak Eslovakia



### PLASTIKO ZABOR METAKETA

Argazkia Maldibetako Thilafushi ugartearen harturikoa da. Gaur egun, plastikoaren %9 bakarrik birziklatzen da, beste guztia lurperatzen, erretzen edota ingurumenean barreiatzen da.


eta Lituania dira, baina %56ra baizik ez dira iristen. Tasa apalenak Frantzian (%21) eta Maltaan (%10) aurkitzen dira. Baina %100 lortuko bagenu ere, arazoa ez litzateke konponduko: birziklatzeak nanoplastikoak sortzen ditu, hots 1  $\mu\text{m}$  baino gutiagoko mikroplastiko puskak. Hala ikusi zen Norwegian polietilenoa birziklatzen duen lantegi baten hurbileko erreketan, *Plastic recycling plant as a point source of microplastics to sediment and macroinvertebrates in a remote stream* (“Plastiko birziklapen lantegia, urruneko erreka bateko jalkin eta orno-gabeentzako mikroplastiko iturri gisa”) lanak erakusten digun bezala. Erresuma Batuan, *The potential for a plastic recycling facility to release microplastic pollution* (“Plastiko birziklapen lantegi

bateko mikroplastiko kutsadura isurtzeko duen potentziala”) ikerketak erakutsi duenez, birziklapenerako lantegi batera iristen den plastikoaren %13 arte mikroplastiko bilakatu eta kanpora isuri daiteke eta existitzen diren filtro onenak erabiliz, berriz, %6. Urean zabalitzen diren mikroplastikoak itsasora doaz, eta bertan ere gehiago txikitu eta barreiatu ditzateke zooplanktoia- ren osagai batzuek, zehazki errotiferen, *Microplastic fragmentation by rotifers in aquatic ecosystems contributes to global nanoplastic pollution* (“Ekosistema akuatikoetan errotiferen eskuko mikroplastikoen zatikatzeak nanoplastiko kutsadura emendatzen du”) lanak berriki azaldu duen bezala.

Orduan, erremedioa bioplastikoetan

ote datza? Hala espero genuen, baina *Not so biodegradable: Polylactic acid and cellulose/plastic blend textiles lack fast biodegradation in marine waters* (“Ez hain biodesegingarri: azido polilaktikozko eta zelulosa/plastiko nahasizko ehunek biodesegite lasterra eskas dute itsas uretan”) idatziak erakutsi digu ez dela guztiz hala.

Zailtasun horiek agerian uzten dute plastikoen erabilerak, neurri handian, kutsadura itzulezina eta konponezina sortzen duela, eta aterabideak birziklatzean eta “plastiko kredituetan” oinarritzeak arazoa larritu baizik ez duela eginen. Orain arteko kalteak ez emendatzeko, plastikoa erabiltzeari eta ekoizteari utzi behar genioke. Horretarako zer eskas zaigu? ●



Garrett Leight eyewear



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



# Auxtin Zamora

BIZIA BETE SENTIMENDU



## SENTITU BEZALA EGIN DUT ENE BIDEA, BARNEAN NUEN OLDARRAREKIN



Ezagunak dira poesiaren bideetan egin dituen lanak. Batean, bere olerkiak argitaraturik; bestean, askorenek argia ikus dezaten lan eginez. 25 urte daramatza Hatsaren Poesia egunak Senperen antolatzen, eta delako egun horretan irakurtzen diren poemak liburuetan biltzen. Aurkia agerian, binperrari begira jarri gara, ifrentzuari.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

**Senperen gara, eta Senpere erranik, hor du oraingo Auxtin Zamora Durrutik lakua, Herri Urrats, eta Seaskaren bortzgarren kolegioa, Kattalin Elizalde izenekoa...**

Gauza handia da ikusten dugularik Seaskaren kolegio berria hemen Senperen sortu dela, laku horren ondoan. Ene haurtzaroan toki horrek izena bazuen: Ortzana. Garaian, han ez zen etxe bat ere, edo bide bazterrean, urrun bezala, den bat. Orduan dena oihana zen, eta ur xirripa bat. Ez zen deusik! Ni harat joaten nintzen haurtzaroan, jolasterat, onddoketarat... eta ez nuen nehor ikusten, bakarrik izaten nintzen.

**Laku artifizialak irentsi zuen zure haurtzaroko Ortzana...**

Bai, orain da toki bat turistentzat egina, dena etxea baita inguru horretan. Izena ere aldatu zioten lekuari! Alain Camy lakua izena ezarri zioten frantziarrek. Alain Camy zen mutiko bat ene adinekoa, gazterik hila. Mutiko haren aitak abiatu zuen laku hori, eta semea hil zelarik, erabaki zuten leku horri mutikoaren izena ematea; frantsesez, bistan dena: Le lac Alain Camy... Hor ikusten da euskaltasuna nola galdu den: Ortzana zena, Alain Camy da orain.

**Izena frantsesturik, frantsestua ere izana?**

Beharbada, bai. Baina lakua bukatua ikusten nuelarik, egun batean hasi da zerbait, euskaraz: Herri Urrats. Egun bat irauten zuen Herri Urratsek. Mirakulu bat

izan zen. Eta orain ikusten dudalarik ikastolaren eraginez nola gauzak aldatzen ari diren pixkanaka, kolegio berria hor sortu dela, plazer izugarrikoa da. Leku horrek galdua zuen euskal arima, eta orain berriaz arima horretaz betea da, ez osorik, baina pixka bat, lehenago baino gehiago beti, eta hori esperantza handia da enetzat.

**Haurtzaroa erran duzunez, on izanen da erratea Senperen berean sortua zaitugula 1943an, Olha auzoko Altziburua etxean, Bigarren Mundu Gerla fini ez zela.**

Bai, eta hemen ziren alemanak, baina gerla bururatzerat zihoan laster. Hemen ez zen borrokarik izan, baina mendeku haritzeak izan ziren, hala ere. Alemanak Fran-



# Auxtin Zamora Durruti

SENPERE, 1943



Poesiari loturik ageri da beti haren izena, bateko Hatsa elkarte eta beste Hatsaren Poesia Egunak, baina olerkiaren bideetatik landa ibili zaigu hemen. Laborari etxean sortua, herriko eskola pribatuan ikasi zuen 1954 arte, Baionako Eliza eskolan ondoko bi urteetan, eta Uztaritzeko seminario txikian 1956tik 1959ra. Apeztegia ezin jasanik egin zuen Baionako René Cassin lizeora. Quebecen zen lanean 1967an, eta, handik itzulirik ezkondua, arno salmentan hasi zen. Hurrena, Baionako Langile Gazteen Egoitzako kontulari izan zen 1975etik 1998ra, eta, hurrezkerok, hotel bateko gau-zaindari Donibane Lohizunen, 2004an erretretan sartu arte. Poeta da, hainbat bilduma ondura, eta guzizko eragilea. Sarako Idazleen Biltzarraren omena jaso da, eta euskaltzain ohorezko izendatua.

tziatik-eta bota zituztelarik, batzuek mendeku hartu zuten, eta aleman batzuk Senpere-Sara artean erailak izan zirela badakit. Ez anitz, baina batzuk; bizpahiru-edo. Ez da horretaz nehor mintzatu... Badut familiar istorio bat, nola osaba batek, erresistentzian zela, garbitu zuen aleman bat. Txikia nintzen, eta gero jakin dut hori. Halaber, badakit gerraren eraginez jatekoen murrizketak izan zirela, eta ene amak azukrea-eta ekartzen zizkidala harat edo honat ibiltzen zelarik. Ongi babes-tu ninduen, lehen haurra izaki ni.

**Zortzi haurridetan gehiena, nagusia zu, laborari etxean Olha auzoan.**

**Han hazia zaitugu...**

Bai, eta herriko eskolan ikasi nuen. Senperen baziren bi eskola, elizarena, eta laikoa, nahiz pentsatzen dudan orduko garaian Senperen denak katolikoak ziren, salbu kanpotar zenbait, guardak... edo jendarmeak! Eskola laikoak haur izugarri gutxi biltzen zuten: kanpotar haurrak, umezurtzak. Umezurtz horiek Senpereko familietarat etorriak ziren, haziak izateko. Ez ziren biziki ongi ikusiak, eta familiek uzten zituzten eskola publikoan. Haur gutxi ziren eskola hartan, eta, gainera, baztertuak ziren.

**Deserriratuaren zoria, nonahi ere zokoratua.**

Baina kanpotar haur haiek ere bortxatuak ziren katixima egitera, hala ere. Hemen [Larralde] ondoan, Amotzen, bazen eskola txiki bat, kanpotarrez eta umezurtzez osatua; izugarri gutxi ziren, baina bazuten eskola hura. Alta, herriko apezka ez zen honat etortzen, eta hemengo haurrak joaten ziren herrira katiximara. Oroitzen naiz apezka gaizki errezibitzen zituela, berant etortzen zirela-eta. Batzuetan, sartzerat ere ez zituen uzten, berant heldu zirelako. Bazen XIX. mendean hasirik, laizismoaren eta Eliza katolikoaren arteko bataila bat, eta Senperen berean ere! Haur umezurtz haiek, gero, besteek bezala egin zuten bidea, euskaraz mintzatzen ikasi zuten beren familietan, eta, oro har, ongi tratatuak izan dira familietan, nahiz izan diren kasu batzuk familiak gaizto portatu direnak. Badakizu, euskaldunak ez gara besteak ez bezalakoak.

**Eskolan dena izanen zen frantsesez.**

Bai, baina, beharrik, Senperen euskaraz eginen genuen katixima hura. Beste

toki batzuetan ez zen horrela! Saran, demagun, bietara eginen zuten. Senperen euskaraz zen katixima, eta hori, bederen, euskaraz irakurtzen genuen. Ez ginen alfabetatuak –ni ez naiz sekula alfabetatua izan–, baina katixima, eta *Herria* aldizkaria, euskaraz irakurtzen genituen. *Herria*-k presentzia idatzia ematen zion euskarari, nahiz jendeen artean ez zuen eragin handia. Baina, hala ere, gure identitateari presentzia ematen zion. Elizan erosten genuen aldizkari hori, meztatik landa.

**Zertan zen euskararen prestigioa garai hartan, eta herri osorik euskaldunean?**

Etxeko giroari esker atxiki dugu euskara. Erran dut, eskolan ez zen frantsesa baizik, eta, bertzalde, ene buruan nuen euskararen gainean erraten zidatena, Baionatik harat euskarak ez zuela baliarik, hobekiago nuela frantsesa ikasi. Eta hori egin nuen.

**Baionatik harat euskarak ez zuela balio, 14ko Gerla Handiaz geroko frantseste azkarraren beste urrats bat, edo “euskara baizik ez zakiten haiek, morts pour la patrie”?**

Bistan da. Senperen, 60 hilak izan ziren 14ko Gerla Handian. Bigarren Mundu Gerlan ere, anitz larriki zaurituak izan ziren, hilak ere bai... Eta horrek eragin handia ukan zuen. Gerla egin zutenak gibelerat etorri, eta harro ibili ziren herrian. Eta, ere, inposatzen zuten beren ikusmoldea, zeren eta gerla egin zuten. Gu umil-umil egoten ginen soldadu izandakoen aitzinean, eta 14ko Gerlako ospakizuna eginen zutelarik, populazioak zeremonia segitzen zuen, eta horrek eragin handia izan du frantsesearentzat... Orain ere eginen da gerlako ospakizuna, eta *Morts pour la patrie* monumentua ere hor da beti, eliza ondoan.

**Eliza eta estatua, beti aparte, beti eskutik**

Eliza eta estatua elkarri estekaturik biak. Adibidez, 14ko Gerlaren garaian, hemengo erretorea oso gerlatia zen, gazteak bultzatzen zituen gerlarat joatera, militante osoa zen. Bi liburu ere idatzi zituen, Piarres izenekoak biak –lehen atala, eta bigarrena–, eta haietan agertzen da haren gogoa. Jean Barbier zuen izena erretore horrek. Kobarde bat zen, zeren eta, herrira soldadu hilak etortzen zirelarik, hastapenean





familiatarat joaten zen, bere pena praktikatzera, baina, gero, utzi zion joateari: auzapeza joaten zen, baina Barbier bera ez zen agertzen ere. Saingalaria izan da. Literaturaren historiara pasatu da, idatzi zuelako, baina ez da ongi ikusia hemen.

#### Nor da, ordea, literaturaren historia horretaz interesatua?

Nehor ez, nehork ez baitu irakurtzen Lapurdiko literatura. Badira gazte batzuk, bai, ongi ikasiak, eta adituak, gure literaturan interesatuak direnak, eta, ene iduriz, hori da harrigarriena, herriak ez duela eliteak duen funtsa. Damugarria da: herria ez da interesatua, eta elitea bai. Jadanik gure garaian bazen desberdin-

tasuna, laborarien eta karrikakoen munduen artean. Gu, laborariok, petzeroak ginen, herritik urrunago, eta petzeroago; hurbilago, eta gutxiago. Gu herrian euskaraz aritzen baginen, "Petzeroak!", hots egiten zuten karrikakoek. Behar zuten, nonbait, erakutsi elite zirela. Eta apezek ere berdin: katiximan, euskaraz egiten zena, egiten zuten ere frantsesez, seminarioan edo eskolan kanpoan ibilki zirenentzat. Horientzat frantsesez. Elitea ez zen euskalduna gure herrian ere. Orain, aldiz, alderantziz da, erran duzunez: herria ez da interesatua, elitea bai. Orain, euskaldun dira kontziente bilakatu direnak. Ni bezala-edo, buruan ximixta bat ukan dutenak. Horiek badira euskal-

dun, eta horrek pozten nau, ikustea gazte batzuk zein adituak bilakatzen ari diren. 15-16 urtetan ez nuen sekula pentsatzen horrelakorik ikusiko nuela, ez nuen asmatzen ahal ere horrelako kontzientzia bat izanen zela. Orain, ikusten dudalarik kontzientzia hori, plazer egiten dit: ikustea gazte bat mintzo dena ni baino hobekiago, ikasi duena ere ni baino anitzez gehiago.

#### Unibertsitatean ikasiak dira gazte aditu horiek...

Bai, eta beti erraten dut nik nire unibertsitate ikasketak unibertsoaren barnean egin ditudala, ez nuela behar unibertsitatea. Unibertsitarioak behar ditut, bai, beren barnean duten jakitatea interesatzen zait, baina ez nuen beharrezko ikusten nik unibertsitate ikasketarik egitea. Alta, pentsatzen dut egingen nituela, beharbada ez anitz, ez bainaiz buru handikoa, baina egingen nituela, hala ere. Zuk herritik Baionara egin zenuen ikastera, hamaika urte beterik.

Senperen izan nintzen hamaika urte arte, eta, gero, Elizaren eskolara joan nintzen Baionarat, apezan eraginez. Ene familia konbentzitu zuten, apez behar nuela izan. Ez nintzen sobera apez zale, ez nuen apez izatea maite. Apez izan nahi nuen, baina mezaren zeremonia egiteko! Eta Baionatik, gero, Uztaritzeko seminario ttipira.

#### Uztaritzen Piarres Lafitte izan zenuen irakasleen artean. Irakasleen artean, berriz, han ziren, Manex Pagola, Gexan Alfaro, Pantxo Carrere, Peio Ospital...

Bai, ezagutu nituen horiek denak. Gexanek-eta, egin zuten iraultza txiki bat, euskararen alde-eta, aurreko irakasleak eta ikasleak frantsesez ari baitziren. Iraultza txikia, ez orokortua, baina jendeek

**Az.29-Ab.4**  
**2023**

**EUSKARAREN**  
**astea 2023**  
**Oiartzun**



kontzientzia hartzeko balio izan zuena... Lafitte gutxi ezagutu nuen, sei hilabetez-edo izan nuen irakasle. Jainkotzat hartua dugu, baina nik ezagutu nuelarik, ez zuen euskaraz deus egiten. Hor ez dut Lafitte euskalduna ikusi. Harrigarria da, zeren eta seminarioan baziren bi mundu paralelo: ezkutua bat, agerian zegoena bestea.

### Zein bi mundu? Euskaraz, ari zara?

Bai, zeren eta denek bazekiten euskaraz; ikasle guzietan erran nahi dut. Hala ere, dena zen frantsesez, euskara ezkutuan atxikitzen zuten denek. Ikasle haietarik batzuek [Alfaro, Carrere, Ospital, Mixel Oronoz] bidea egin zuten gero euskaraz. Manex Pagola-eta! Oroitzen naiz Manex Pagola misionest gisa ematen zela gure aurrean: eskaileretan ezartzen zen eta, eskuak altxaturik, egiten zuen diskurtsoa euskararen alde. Urte bat-edo egon nintzen Uztaritzen, baina atera nintzen, ez bainuen seminario giro hura soportatzen. Eta Cassin lizeo publikora joan nintzen, Baionarat.

### Nor da euskaltzalea oraiko egunean?

Petzero laborariak... Batzuk. Laborantzaren medioz atxiki dute euskara, eta horien umeak dira oraingo egunean euskaltasunaz kontziente. Batzuk bai, anitz

ez. Gutxi dira beti argituak.

### Apez izatetik eskapatu zinen, jasaten ez zenuelako, Aljeriako gerlatik landa egin ahal izan zenuen bizia...

Baina soldadu izan nintzen Amiensen, Frantziako iparraldean. Nahi zituzten gazteak kendu beren ingurumenetik. Iparraldea frantsestua zen, 14ko Gerlaren eraginez, eta Bigarren Mundu Gerlaren eraginez ere, eta han euskaldunak sartzea zen gu frantsesteko bide bat. Eta frantsestu ondotik, hor barnean irauten du horrek luzaz. Aljerian ez nintzen izan, estudiante nintzelakoz: urte baten epea nuen armadara joateko eta, justu urte horren buruan, fini zen Aljeria. Ez naiz damu Aljeriara ez joana, zeren eta gerla hastio dut, eta hastio ditut armak. Hain sinplea litzateke erresuma denek erratea: "Ez dugu armarik eginen!". Lanean aritu behar duzu, baina ez armak eginez!

### Hitz beste eginez, harritia naiz, irakurri baitut 1967an Quebecera joan zinela, dirua egiteko xede, ezkondu ahal izateko.

Bai, ez bainuen deus ere, eta orain ere ez dut deusik. Kar, kar... Dirua behar nuen, ezkontzeko, eta han ere frantsesa mintzatzen baitira, joan nintzen. Ez nintzen

intelektuala, eta kozinan lan egin nuen, ostatu batean. Hemen ere hori gertatzen da: etortzen dira etorkinak, eta kozinan hasten dira, baxera garbitzen. Ez nintzen Quebecen luzaz egon, urte eta erdi, bi urte-edo, baina lanean hasiz geroztik, emeki-emeki, so eginez-eta, ikasi nuen lanean, eta azkenean, hango arduradunak eskatu zidan chef izatea. Baxeretan hasia, nahi ninduen chef atxiki, baina ezetz erran nion, behar nuela etxerat etorri, ezkontzerat.

### Eta geroztik, lan egin zenuen arnoa saltzen, kontulari, hotel bateko gauzaindari... Erretretan sartu arte. Gu, aldiz, zinezko poeta zinela izan gaituzu beti.

Olerkaritzak bultzatu ninduen lan horiek guziak egitera. Ez nuen nire burua egoera batean gaketu nahi. Egoera bakoitzak badu bere muga, badu hastapena, eta bururapena. Eta egoeraren bururapena sentitzen duzularik, beste zerbait egin behar duzu. Hori eginez, atxikitzen duzu zure nortasuna, libertate handiagoa. Horrela izan dela iruditzen zait. Nik, bederen, horrela analizatzen dut nire bidea. Baina da nire bidea, ez bertzerena. Sentitu bezala egin dut ene bidea, inkontzienteki, barnean nuen oldarrarekin ●

**Euskaraz?** **Pozik gainera!**

**Ahoan igartzen da bihotzak zer duen egarri**

943 73 71 91 · euskara@legazpi.eus  
www.legazpi.eus

legazpi euskara  
LEGAZPIKO UDALA



## Gerra, genozidioa eta moral bikoitza

**D**enok genekien gezurra zela. Ukrainari emandako babesaren atzean ez zegoen arrazoi moralik, ez zegoen giza eskubiderik, nazioarteko legedia edo demokrazia defendatzeko asmorik. Urteetan Mendebaldeak beste alde batera begiratu zuen Kievek Donbasseko biztanleria bonbardatzen zuenean edo aurkari politikoak jazartzen zituenean. Nazioarteko legediari dagokionez, errusiarrek Ukrainan egin duten nazioarteko legediaren haustura larriaren pareko zerrenda luze bat du NATOk berak. Demokrazia kontua ere ez zen, Ukraina ez zegoen horrela sailkatua neurketak egiten dituzten hainbat indizetan, eta ez zen harriztekoa, kontuan hartzen badugu Errusiaren inbasioa baino lehen herrialdean eskuin muturra oldartuta zebilela, oposizioko liderra ("errusiar zalea") etxean atxilotuta zegoela, oposizioko bigarren liderra (ukrainar nazionalista) judizialki jazartzen ari zirela eta Zelenski presidenteak telebista eta komunikabide ugari itxi zituela.

Atzean arrazoi geopolitikoak zeuden. Washingtonek ukrainar armada Errusiar gerra egiteko erabiltzen du. Ardatz anglosaxoia horretan tematuta dago: 2014tik egon diren bake akordio guztiak Londresek eta Washingtonek blokeatu edota boikotatu dituzte. Jens Stoltenberg, NATOk idazkariak, azaldu du errusiar inbasioa geratzeko NATOk bere hedapenari uko egiten zion dokumentu bat sinatzearekin nahikoa zela, baina

Israelentzat ez dago zigorrik, ez zaizkio konfiskatzen atzerrian dituen finantza-aktiboak (aitzitik, laguntza ekonomikoa eta militarra ematen zaizkio)

ez zuela sinatu, eta orain, Kievi gauzak maldan gora jarri zaizkionean, Mendebaldeak dio bakea negoziatzeko unea iritsi dela. Zaila da ulertzea nola azalduko dieten ukrainar herritarrei beraien agintariak eta NATOk bete nahi izan ez zituzten Minskeko bake akordioek aurreikusten zutena baino lurralde dezente gutxiago izango dutela, odol eta suntsipen askoren truke. Halere, batzuk pozik egongo dira, Errusia partzialki ahuldu dutelako eta muturreko nazionalismo ukrainarra eta NATO zaletasuna indartu dituztelako.

Edozein kasutan, Ukrainako gatazka bigarren planora pasatu da eta Mendebaldeko moral bikoitz osoa gordinki mahai gaineratu duen Palestinako gatazka berragertu da indartsu. Israelek berriro agerian utzi du bere benetako



**ASIER BLAS MENDOZA**  
EHU-KO IRAKASLEA

izaera: XX. mendeko apartheid hegoafrikarraren eta XIX. mendeko kolonialismoaren arteko nahasketa. Badakigu nazioarteko legedia hausten txapelduna dela, baina oraingoan haratago joan da: XXI. mendean Israel gure sudur puntan makro garbiketa etnikoa eta zuzeneko genozidioa egiten ari da, Mendebaldeko elite politikoen babes esplizitu edo inplizituarekin.

Aste gutxi batzuetan Israelen erasoek Ukrainako gerrako ia hamar urteetako hildako zibilen kopurua gainditu dute. Gainera, Ukrainan bando bateko eta beste hildako zibilen kopuruak antzekoak dira gutxi gorabehera; Palestinan, aldiz, hildako arabiarrek, gutxienez israeldarrak baino hamabost aldiz gehiago dira. Gazaren aurkako ankerkeriak eta suntsipenak marka guztiak hautsi ditu. Israelek Nazio Batuen Erakundeko 100 langile baino gehiago, 50 kazetari baino gehiago eta milaka haur hil ditu. Halere, Israelentzat ez dago zigorrik, ez zaizkio konfiskatzen atzerrian dituen finantza-aktiboak (aitzitik, laguntza ekonomikoa eta militarra ematen zaizkio), ez da nazioarteko kirol-lehiaketetatik kanpora tzen, ez dira bere artistak jazartzen eta, noski, Nazioarteko Zigor Auzitegiak ez du Israel jazarriko, AEBek jazartzen ez duten bezala. Bitartean, Mendebaldea hor dabil justifika ezina dena justifikatzen terrorismoaren kontrako borrokaren izenean (sic), ahaztuta jardun armatu hori okupaziotik, kolonizaziotik eta apartheidetik sortutakoa dela. ●

# Hileta erritoak



TERE MALDONADO  
FILOSOFIA IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

**P**aleolitik ez da aldatu gure harri-dura heriotzaren aurrean. Hileta-erritu bat irudikatzean, beti sartzen dira koadroan tristura eta larritasuna halabeharraren aurrean; pintzelkada leunetan edo dosi handietan, kultura horren emozioen tratamenduaren arabera, adierazkor edo neurritsuagoa. Heriotza erritualizatzen dugu, ulertu nahian. Alferrrikako ahalegina, baina egiten jarraitzen dugu milaka urteren ondoren. Heriotza ulertzeak bizitza osotasunean ulertzea suposatuko luke, eta badirudi galdera partzial eta mugatuei baizik ezin diegula erantzun. Hori egiten du zientziak. Kantek zioenez, erantzun ezin dugun horri buruz galdetzen jarraituko diogu geure buruari, garenaren parte baita ulertzen ahalegintzea. Heriotzari zentzua bilatzea, akaso, ulertzeko go-goaren erakusgarri nagusia da, porrote-ra kondenatuta dagoena.

Historiaurreko ehorzketa batzuetan, Kurdistaneko neandertalen aztarnategian, kasu, lurperatutako gorpuzkiak antzinako polenaz estalita daude; horrek hilotzen gainean loreak jar zitezkeela pentsarazi du. Hildakoa hiletarik gabe uztea, sarraskijaleek gorpua akabatu dezaten, krudelkeritizat jotzen dugu; zer esan hilotza zaldi bati lotuta arrastaka eramateaz, Akilesek Hektorren gorpua-

rekin egin zuena, desitxuratuta utzi arte. Antigonak erregearen aginduari desobeditu zion, bere anaietako baten gorpua zaborra bezala botata uztera behartzen zuena. Bizia arriskuan ipini arren, une batez ere ez zuen zalantzatu *hileta-ponpa* egokiak eskaini behar zitzaizkiola anaiari.

Lekuz leku, garaiz garai, aldatzen dira hiletak egiteko moduak, baina egitura sakona aldaezina da: zerbait egin behar da, une batez gelditu eta hildakoei azken agurra eman. Doluminak ematen ditugu, eta eskertu ere bai; formula zurrunik izanik, mina adierazteko adierazpen formalizatuak, doluminak kontraesankorrak dirudite. Leku askotan eta luzaroan ordaindu zaie emakumei hiletetan negar egin dezaten, gauza harrigarria egungo sentiberatasunarentzat, emozioen adierazpen zintzoekiko mendeko. Negar-kantariak diru-truk beti izaten dira emakumeak, baina literaturako malko ospetsuenak, gizonenak gizonentzako: Gilgameshek Enkiduren heriotza negartzen du, Akilesek Patroklore-na, Jorge Manriquek aitarena, Miguel Hernándezek Sijerena, Lorcak Sánchez Mejíasena.

Fedegabezia modernoa erritua baztertu eta beste zerbaitetara azkar pasatzen saiatu zen; larritasuna areagotzea

baino ez zuen lortu. Maite dugun pertsona baten heriotzak sortzen digun ulertezintasuna adierazi behar dugu liturgia kolektibo batean parte hartuz, horrek bakardadean bizitako sufrimendua ekidin ez arren. Maitasun-haustura batean sonetoez bezala, ordena, metrika, errima jartzen baitute izugarrikerian. Atsekabea sasoiaren eta leku egokian, bizitzak jarraitu behar baitu, topikoak dioenez. Eta jarraituko du. Miguel Hernándezek aipatutako elegia ederrean honela zioen: "Inoren berorik eta kontsolamendurik gabe nire bihotzetik nire kontuetara noa"; bihotz suntsitutik isuna garaiz ordaintzera, deskontua ez galtzeko. *Hila lurpera, biziak asera* dio atsotitzak, errukigabe. Bizitzak jarraitzen du, heriotza erremediorik ez duen gauza bakarra delako. Ez da sinesgarria kristauek diotena, "Aitaren altzoan egongo da jada": hala balitz, zergatik ez die pozik ematen heriotzak? Baina hiletetara doluminak ematera bertaratzen ez denaren ustezko ikonoklasia ere ez da ulertzen, formaltasun hutsa delako aitzakiaz. Kontsolamendurik ezean: erritua, errima, mina bideratzea.

Penintsulara iritsi den azken paterako migratzaileek zenbait gorpu kareletik bota behar izan zituztela esan berri dute irraturan. ●

## Hezkuntza Legea da arazoa, ez 5. zuzenketa



**MIKEL BASABE  
KORTABARRIA**  
IRAKASLEA

**A**rtikulu hau katalanek lortutako amnistiari buruz idaztea nuen buruan, lorpen horrek gauza bi utzi dituelako agerian: dena negoziatzen ahal dela eta, batez ere, amnistiatiak beherako edozer gauza lortzeko une historikoa alferrik pasatzen utzi dutela abertzaleek. Batzuek, betikoa negoziatuta; besteek, PSOE soken kontra zegoenean boterea musu-truk emanda. Ondorioz, euskara ez da Nafarroa osoan ofizial izango, trebiñarrek ez dute bozkatuko, kirol selezioak ez dira ofizialak izango, etab.

Baina Hezkuntza Legearen onarpena berehalakoan dator, itxuraz EH Bilduren babes barik. Nonbait, EAJ-PSEk hitzartutako 5. zuzenketa asaldatu du ezker abertzalea. Harrigarria, zuzenketa horrek ez baitu legea euskararentzat kaltegarriago bihurtu.

Indarrean dagoen araudia eskutan (138/83 Dekretua), A eredu euskara gehiago sar daiteke: Lehen Hezkuntzako "goi mailetan beste irakasgaietako zenbait gai ere euskaraz landu ahal izango dituzte, baldin eta ikasleak bere euskara mailaz nahiko trebaturik baleude". Bigarren Hezkuntzan: "Euskararen ezaguer-maila on bat eskuratu duten ikasle-taldeekin zenbait gai euskaraz ere landu ahal izango dira".

B eredu euskara gehiago sar daiteke: "Gaztelania, berez, irakurke-

ta-idazketa eta matematika bezalako irakasgaietarako erabiliko da. Euskara beste arloetako gaiak lantzeko".

Baina dekretuak ez du D eredu gaztelania sartzeko aukerarik ematen: "Irakasgai guztiak -gaztelania izan ezik- oinarri euskaraz landuko dira".

Berez, hizkuntzen tratamenduari dagokionez, Jaurlaritzak aurkeztu eta EH Bilduk babestutako Hezkuntza Legeak D eredu kaltetu besterik ez du egiten, 5. zuzenketa barik ere: "Bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ikaskuntza-hizkuntzat hartuko baitira". Hau da, D eredu gaztelania sartuko da (eta ingelesa; ondorioz, B eredu bidean).

Ikastetxe guztietan egindako azken ebaluazio diagnostikoa 2019koa da. Hauxe dio: "DBHn elebitasunaren helburua ez da lortu A publikoaren %96,3an, B publikoaren %83an, itunpeko Aren %82,6an, ezta itunpeko Bren %64,3an ere. Baina D ereduak ere ez du bermatzen elebitasunaren helburu hori lortzea, ez baita bete D publikoaren %49,1ean eta itunpeko Dren %57,8an".

Datu horiez jakitun, EH Bilduk euskara gutxiagoko irakaskuntza bultzatu zuen emaitza onenak ematen dituen D ereduaren kaltetan. Badirudi atzera egin, eta ez duela legea babestuko. Ondo, baina beranduegi: EAJ-PSEk bera barik onartuko dute legea, gutxi barru. ●

## Diskurtsoaren lapurreta



**ARANTZA GUTIÉRREZ**  
EHU-KO IRAKASLEA

**A**zaroaren 16 eta 17an zainketei buruzko lehenengo euskal biltzarra egin da Donostian. Bertan, lehen-dakariak eta beste agintari batzuek zaintza sistema komunitarioa eta zaintzen inguruko itun soziala aldarrikatu dituzte. Azken asteotan, Eusko Jaurlaritzaren publizitateak goraiatzen ditu autogobernuari esker EAEn ditugun zerbitzu publikoak, eta auzolanaren balioa ere bai. Osakidetzaren 40. urteurrenaren inguruko iragarkiek inongo osasun sistemarik onena dugula errepikatzen dute, eta beste kanpaina instituzional batek, berriz, zaintza-sarea balioan jartzen du.

Antza, Euskal Herriko Mugimendu Fe-

ministaren diskurtsoa bereganatzen ari dira EAEko erakunde nagusiak. Susmoa dut, ordea, hortik haratago ezer gutxi dagoela. *Zaintza publiko komunitario* bezalako kontzeptuek *copyright*-ik ez dutela eta kolektibo baten jabetza ez direla jakin arren, aitortu behar dut beldur naizela hitzen eskuratze horren atzean ez ote dagoen esanahia kentzeko ahalegina; are gehiago, Greba Feminista Orokorren atarian. Horregatik, inoiz baino garrantzitsuagoa da azaroaren 30ean kalera ateratzea, gure diskurtsoa bezala, zaintzak eta zerbitzuak haien jabetza (eta gutxiren negozio) bihurtu ez dituzaten, gutxien ondarea baizik. ●

# Ekologismotik ere, Denon Bizitzak Erdigunean



SUKAR HORIA

**E**uskal Herri osoa "Denon Bizitzak Erdigunean" lelopean greba orokorra egitera dago deitua. Lelo horrek daukan indarra azpimarratu nahiko genuke oraingoan. Izan ere, bizitzaren beraren aldarrikapena da eta horregatik da hain beharrezkoa. Mugimendu feministak, grebara deitzeko, zaintza lanetan egin du indarra batez ere. Baina deialdiaren mamiak askoz haratago joateko indarra dauka. Gizakiona ez besterik, planeta-ko izaki bizidun guztien bizitzak erdigunean jartzeak gizartearen maila guztietan aldaketak emateko beharra dagoela ikustarazten du. Jada ez gara ari bakarrik gure ume edo aitona-amonez edo horiek zaintzen dituzten pertsonak pairatzen dituzten egoerez, baizik eta hori gertatzea baimendu duen egoeraz beraz.

Esan genezake zaintzaren krisia eta krisi klimatikoa sorrarazi dituzten faktoreak berberak direla. Gaur egun bizi garengizarte kapitalista, kontsumista eta heteropatriarkal honek ekonomia, politika eta kultura ulertzeko modu

Gizarte kristauak  
zapaltzen duten lurra  
ikusten dute izerdi, odol  
eta sufrimenduz landu  
(bortxatu) beharreko  
zeozer bezala

bat sortu du zeinak bizkarra ematen dion (eta guztiz ikusezin egiten duen) gizakiok gure artean eta naturarekiko dugun kodependentziari eta interdependentziari. Hori lurraren baliabide naturalen ustiaketan eta "behe mailakoak" kontsideratzen dituen bizitzen bortxaketan dago oinarrituta.

Gizakiak hasieratik izan du bere ingurunea ulertzeko beharra edo jakin-

mina, eta horrek historian ikerketa eta aurkikuntza iraultzaile askotara eramane gaituela esan genezake. Hala ere, gizarte guztiek ez dute planeta ulertzeko eta horrekin erlazionatzeko modu berdina izan. Yayo Herrerok pasa den urteko Ekotopaketan aurkezpenean esan zuen moduan, gizarte kristauak zapaltzen duten lurra ikusten dute izerdi, odol eta sufrimenduz landu (bortxatu) beharreko zeozer bezala, bertatik bizitarako beharrezkoak lortzeko helburuz. Berez perfektua zen paradisu-tik kanporatuak izateagatik betirako zigorra den eremua da haientzat. Badira beste gizarte batzuk, ordea, lurreko landare eta animaliak haien jainkoen oparigisa ulertzen dituztenak, eta esker onak emateko helburuz "oparitutako" bizitza horiek zaindu eta behar dutenetan errespetuz hartzen dituztenak. Hala ere, eta kolonialismoak (eta horrek leku askotan eragin zituen sarraskiek) horrela bultzatuta, lehenengoa da mundu mailan gailendu dena. ●



## HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"  
Antoine de Saint-Exupery





MONDRAGON

GIZATASUNA  
LANEAN

Finantzak  
Industria  
Banaketa  
Ezagutza

# MONDRAGON EUSKARAREKIN BAT

BAI

AURRERA

BETI

[www.mondragon-corporation.com](http://www.mondragon-corporation.com)



# BOST URTE inor ez da ilegala ALDARRIKATZEN

Bost urtean, Inor ez da ilegala proiektuak lau haizetara zabaldu ditu migratzaileen eskubideen aldeko lelodun kamiseta, jertse eta poltsak; elkarlana eta elkartasuna oinarri dituen ekimenak istorio eta bizipen ugari oparitu dizkigu; eta zoritxarrez, inoiz baino biagiago jarraitzen du egitasmoak, migrazio politika krudela eta migratzaileek jasaten duten jazarpena, horren lekuko.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

**2**018an du abiapuntua Inor ez da ilegala. Bilboko kale-saltzaile senegaldarren Mbolo Moye Doole ehun bat kideko elkartera jo zuen ARGIAk, artikulua baten harira. Paperik gabeko mantero izateari utzi eta kale-saltzaile legal bihurtzeko urratsak emanak zituzten horietako askok, baina kolpe bortitza jaso zuten administratziotik. Baba Mbayek kontatu zigun: “Lizentzia lortu genuen 2015ean, autonomo gisa kale-saltzaile aritzeko, eta urtebeterako bizileku-baimena eman ziguten. Urtebetez Gizarte Segurantzian kotizatzen aritu ostean, hori guztia erakutsi eta beste bi urterako bizileku-baimena berriitu ziguten. Hori zen tratua, eta 200 euroko gutxieneko kotizazioa eskatzen ziguten, bertan bizitzen eta lan egiten jarraitu ahal izateko. Baina egun batetik bestera Espainiako Atzeritarrei Buruzko Legearen bidez erabaki dute 800 euroko gutxieneko kotizaziorik gabe ez dizkigutela paperak berrituko, eta gu ezin gara kopuru horretara iritsi. Hilabete batzuetan 200 euro lortzen ditugu, beste batzuetan 250, gehitu zergak eta fakturak, eta atera kontuak”. Hainbat hiritan, malguago jokatu eta ez zieten 800 euroko

gutxienekoa eskatzen, bizileku-baimena berritzeko, baina Bilbon legea zorrotz aplikatzea erabaki zuten. “Paperak kentzen badizkigute, egin dugun guztiak ez du ezertarako balioko, klandestinitatera itzuliko gara, pobrezia, ezin mugitu eta ezin gure herrialdea eta gure senide eta lagunak bisitatu, ezin lan duinik egin. Kale-saltzaile izatetik mantero izatera igaroko gara, beti korrika eta poliziarengandik ihesi, beldurrez, paperik gabe harrapatzen bagaituzte agian Madrilgo CIE etorkinentzako zentrorra eraman gaitzakatelako, edo hainbeste urte hemen eman ondoren edozein egunetan kanporatu gaitzakatelako. Eta horrela bizitzea, hori buruan, ikaragarria da”.

Migratzaileen kontrako politiken adibide bat gehiago zen, arrazakeria eta xenofobia instituzionalaren adibide bat gehiago, baina baita harreman baten ernamuina ere: ARGIA eta Mboloren artekoa. Elkarrekin zerbait egiteko gogoia piztu zen, eta beharra, elkarren proiektuak indartzeko, injustizia hizki larriz bistartzeko. Horrela jaio ziren kamiseta grisak, aldarria ardatz: Inor ez da ilegala euskaraz, *Amul been nit ku leegalul wolofez.*

## 30.000 EUROTİK GORA LORTU DITU MBOLOK

“Proiektuaren hastapena oso polita izan zen guretzat, potentea, eta oso animatuta eta inplikaturik geunden Mbolon”, gogoratu du Bouba Diouf-ek. Mboloko kidea hasieratik aritu da proiektuan buru-belarri, han-hemenka elkarrekin ateratako arropak saltzen, eta gaur egun Mbolon segitzen du, beste hainbat lan eta zereginekin uztartuta. ARGIAk egindako salmenta bakoitzeko, irabazien erdia ARGIA proiektua eta beste erdia Mbolo elkartearen indartzeko da. Mbolok berak egiten duenean salmenta, apur bat handiagoa da Bilboko senegaldarrek eskuratzen duten diru kopurua. Pasa den urria arte, 30.772 euro utzi dizkie egitasmoak, eta 3.000 bat euro gehiagorekin amaitu dezakete urtea, Durangoko Azoka eta Gabonak tarteko. Kale-saltzaileak eurak joan dira erabakitzen Mbolora bideratutako dirua nola kudeatu. Hasieran, kooperatiba sortzeko gorde zuten dirua, baina traba trabaren atzetik bertan behera geratu zen ideia, eta gainera pandemiak bete-betean kaltetu zituen, ordura arte lortutako dirua erresistentzia kutxa sortzeko baliatu zuten:





"Ezin kalera atera, ezin ezer saldu, gure inguruko familia asko premia larrian geratu ziren eta pentsatu genuen dirua baliatzea egoera gogorrean zeudenei laguntzeko", azaldu du Dioufek. Erresistentzia kuxak pandemia garaian zuen funtzioa mantentzen duela kontatu du senegaldar bilbotarrak: "Oraindik ere egoera latza da, jende gero eta gehiago dator, eta askok laguntza behar du, ez bakarrik etorri berriek, batzuetan hemen daudenek ere, laguntzarik ez badute, oso zaila dute; horiei guztiei laguntzeko erabiltzen dugu proiektuko dirua". Dena den, kopuru bat gordetzen doazela nabarmendu du, "bolada gogoragoetarako hor egongo da", eta egitasmoren bat edo beste badute buruan bueltaka: "Mbolon mugimendu handia egon da beti, batzuk datoz, beste batzuk doaz... baina ideiak baditugu, ikuspuntuak bateratzea falta zaigu".

Alde ekonomikotik harago, ekimenak mezua zabaltzeko balio izan duela azpimarratu du Dioufek: "Euskal Herria herri borrokalaria da, eskubideak defendatzera ohituta dago, eta proiektu honekin zabaldu duguna ere proiektu borrokalaria da. Azken finean, migratzaile izate hutsagatik, beltza izateagatik, zapalkuntza handia jasaten dugu eta mezu hori barreiatu dugu. Are, proiektuak ikusgarritasun handia eman digu, dagoeneko Euskal Herri osoan zehar jendeak ezagutzen du Bilbon Bizkaiko manteroan elkarte bat dagoela Mbolu Moye Doole izena duena! Hori ona da guretzat".

Bouba Diouf bera arituko da Duran-goko Azokaren egunetan, herriko eliz atarian jarri ohi dugun postuan, ARGIA-ko Mikel Olabide kidearekin batera Inor ez da ilegala produktuak saltzen. Elkarlanak bizirik dirauelako, eta elkarlan horrek esperientzia eta bizipen ugari utzi

"Egoera latza da eta etorri berriek bakarrik ez, batzuetan hemen daudenek ere, laguntzarik ez badute, oso zaila dute; horiei guztiei laguntzeko erabiltzen dugu proiektuko dirua"

## Bouba Diouf

ditu urteotan. Tartean, liburu bat eta solasaldi sorta emankorra.

### PAPE NIANG. HASIERA BERRI BAT

Mboloko orduko lehendakari Pape Niang ezagutu eta kasik urrats naturala izan zen hari buruzko liburua ateratzea. Zergatik Pape? Kontatzeko moduko bizitza, esperientzia eta gogoetak dituelako: Senegalen zeraman bizimodua; nola egin zuen Dakarrera, hiriburura, bizimodu hobe baten bila; zergatik erabaki zuen Europara jauzi egitea; ze odisa bizi izan zuen bidaia luze eta gogor horretan, bai Afrika zeharkatzen lehenengo, bai pateran Mediterraneo gurutzatzen ondoren; zer aurkitu zuen European; zer den paperik gabe Euskal Herrian bizitzea; kooperatiba bat sortzeko ametsak berpizturiko esperantza... *Pape Niang. Hasiera berri bat* liburuan biluztu egin da protagonista, eta bere minak eta pozak kontatu ditu. "Bizitzen eta sufritzen duguna kontatzen badugu, agian jendeak migrazioa zer den ulertuko du, gure azalean jartzeko ahalegina egingo du", dio. "Migrazio prozesuan, bidean geratu den orok kontatzeko asko zuen eta pertsona horien guztien mezua helaraztea ga-

rrantzitsua da; ez dugu soilik esan behar Mediterraneoan jende asko hil dela, horren zergatia azaldu beharra dago".

Niangen bidaia, jakina, ez da bakarrik fisikoa izan, barne-bidaia ere egin du, munduarekiko duen begiradan nabarmen eragin dio migrazioak. Gai ugariri buruz mintzo da liburuan: Afrikako bizimoduan zein eragin (eta zein ardura) duen Europak eta neokolonialismoak; nola ikusten den Afrikatik Europa, nola ikusten den Europatik Afrika; migrazioaren atzean dagoen negozioa ("ostatu ematen dizutenak, zure bila doan kote-gidaria, trafikatzailerak, patera abiatzea errazten dutenak... Jende horrek guztiak etekina ateratzen du; galtzen duen bakarra haiei ordaintzeko dirua luzatzen duen migratzailea da, eta agian iritsi ere ez da egingo helmugara"); zer suposatzen duen migratzaile eta beltza izateak gure gizartean... "Migratzaileok hutsaren hurrena bagina bezala hautesmaten gaituzte, esperientziarik gabekoak, berezko tokirik ez bagenu bezala. Horren aurrean, geure burua balioetsi behar dugu. Basamortua bost litroko ur bidoi eta gailera pakete batekin zeharkatu duen jendea mundu guztiak baloratu beharko luke".

Hitz gogorak ditu Niangek: "Migratzailea izatea umiliagarria da, zer esanik ez Saharaz hegoaldekoa bazara. Lana lortzeko zortea baduzu, adibidez, lan hori nolakoa izango da, zein baldintzatan? Eskaintzen digutena ez da enplegu bat, geure duintasuna galtzea da. Beltzak gara eta beltz gisa hartzen gaituzte".

2019ko ekainean liburua argitaratuz geroztik, han-hemenka aritu da Pape Niang bere historia kontatzen, solasaldi eta topaketa aberasgarri ugariaren abiapuntua izan da. Hunkigarrietakoa, zailtzarrik gabe, pasa den otsailan Eibar-ko helduen hezkuntza eskolak deituta



**LARRABETZUN,  
EUSKARAZ BIZI**

www.larrabetzu.eus / udala@larrabetzu.eus  
Facebook.com/Larrabetzu  
Twitter.com/larrabetzuudala  
Instagram.com/Larrabetzuko\_udala








Pape Niangen solasaldi hunkigarrietakoa, pasa den otsailean Eibarko helduen hezkuntza eskolak deituta Armeria eskolan antolaturikoa izan zen. Bereztasun bat zuen saioak: publikoaren gehiengoak jatorri atzerritarra zuen.

Armeria eskolan antolaturikoa. Bereztasun bat zuen saioak: aurretik izandako mintzaldietan ez bezala, publikoaren gehiengoak jatorri atzerritarra zuen, eta nahiz eta Niangek ohiko moduan hasi bere kontakizuna, une batean gelditu behar izan zuen, jende bat negarrez hasi zelako, norbere esperientzia gogoan, publikoa besarkatzera ere jaitsi zen ohol-tzatik Niang, batzuek eta besteek bizitakoa partekatu zuten, eta une batean katartikoa ere izan zen.

Migrazio prozesu askotarikoak daude eta migratzaile bakoitza eta migrazio bakoitza mundu bat da, baina Eibarko saioak erakutsi zuen Paperena badela beste askok bizi duten errealitatearen isla, eta migrazio gehien atzean da-


"Euskal Herria herri borrokalaria da, eskubideak defendatzera ohituta dago, eta gurea proiektu borrokalaria da. Jendeak dagoeneko ezagutzen du Bilbon Bizkaiko manteroen elkarte bat dagoela Mbolo Moye Doole izena duena!"

**Bouba Diouf**

goela beharra, dagoela bidaia gogor bat tartean eta dagoela sarri ongi hartzen ez dituen gizarte bat helmugan.

### **ARRAKASTAREN AURKIA ETA IFRENTZUA**

Inor ez da ilegala kamisetarik izango duzu armairuan, beharbada, edo auzoan eta herrian ziur ikusi duzula kamiseta, jertsea edo poltsa. Bertsolari, abeslari, politikari eta aktoreei ere ikusi diezu soinean jantzita, prentsaurreko eta aurkezpenetan begiz jo duzu hizlariren baten jantzian. Izan ere, aldarriak arrakasta lortu du Euskal Herrian eta Inor ez da ilegalaren postura hurbiltzen den bati baino gehiagori entzun diogu, jertse jakin bat eskatu eta kolore hori ez baldin





badago, beste kolore bat aukeratzea, eta jertserik ez badago, kamiseta. Helburua delako Inor ez da ilegala etxera eramatea, kalean harro janzteko. Produktuok eskuratzeko, jo ARGIAren Azokara ([azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus)) eskatu Mbolon edo gerturatu Inor ez da ilegala duten salmenta puntuetara (Gasteizen Mara-Mara, Eva Forest eta Liburutopia, Laudion Aiaraldea, Durangon Hitz, Bilbon Saha, La Sinsorga, Zirika eta La casa comprometida, Atxondon Amillena, Usurbilen Laurok, Andoainean Ernaitza, Oiartzunen eta Irunen Labore, Azpeitian Elkargunea, Baionan Epaiska, Iruñean Karrikiri, Artean Herriko Benta, Donostian Kaxilda).

Lorturiko arrakastak islatzen du euskal gizarteak barneratuta duela mezua: etorkina izateak ez luke delitu izan behar, paperek ez lukete pribilegioa izan behar, denontzako eskubidea baizik, bizimodu duina eraman ahal izateko. Hain oinarrizko eskaera ozen

"Aurreiritziak nahasten dituzten diskurtso horiek onarpena dutela ikusi dute politikariek, hortik etekina atera dezaketela"

## Moha Gerehou

aldarrikatu behar izateak erakusten du, ordea, bidegabekeriak bizirik jarraitzen duela eta instituzioek entzungor. Are, ez ote duten arrazakeriak eta xenofobiak hauspo handiagoa lortu, ez ote den legedia krudelagoa bilakatu; horren lekuko dira mugetako kontrolak zorroztea, deportazio eta kanporatzeak erraztea, segurtasunaren -edo bestelako aitzakien- izenean eskubide eta askatasunak

murritztea. Berriki onartu dute Frantziako Gobernuaren Immigrazio Legea, egoera irregularrean daudenei trabak handitu dizkiena osasun arloan, gizarte laguntzetan eta paperak lortzeko prozesuan.

Nolatan normalizatu dugu pertsonak oinarrizko eskubiderik gabe uztea, beren jatorriatik? Kolektibo migratzaileek behin baino gehiagotan utzi dute agerian migrazio legeen izaera arrazista, diskriminatzailea eta hipokrita (Hego Hemisferiotik datorren jendeari mugak jarri baina baldintzarik okerrenetan lan egiteko eskuzabal hartzen diren heinean). Zeini egiten dio mesede migratzaileak ez erregularizatzeak, jende bat paperik eta eskubiderik gabe mantentzeak? Esplotazioari etekin ekonomikoa ateratzen diotenei, batik bat. Kolektibo migratzaileek eurek mugimendu indartsua abiatu zuten pandemia ostean, baita Euskal Herrian ere, gobernuai eska-

- ✓ 305.000 biztanleko lurguneko euskalduna
- ✓ 101 udal

"Beti lurpean eta bazterretik zatozen erreka horri, zuri, itsasoa zor dizugu, justizia zor dizugu, ausardia zor dizugu, etorkizuna zor dizugu. Eta gure lo kanta berriekin amets egingo duten haur jaioberriak esnatu daitezela euskararen herrira".

Jon Maia Soria

**arnasa gara**  
**euskaraz gara**





GORKA RUBIO / FOKU

tzeko egoera irregularrean daudenen egoera legaliza dezatela, guztiena eta eskubidez (ez sektore batzuetan lan egiten dutenena bakarrik). Justizia kontua dela diote manifestuan: “Justizia migrazten duten guztientzat, euren senide eta komunitateak atzean utzita, esplotazioa, espetxeratzea eta deportazioa sufrituta. Justizia itsasoak, mendiak, basamortuak eta mugak gurutzatu nahian hil direnentzat. Justizia bortxaketak, torturak eta gerrak jasan eta biziraun dituztenentzat”. Mugimenduak indarra galdu du, eskaerak eta premiak, ez.

### MANTRA POPULISTA

Legearen ankerkeria legitimatzen du, hein batean, batzuen eta besteen ahotan entzuten ditugun diskurtso arrazista eta xenofoboak. “Aurreiritziak hor zeuden eta hor daude, eta dena nahasten duten diskurtso horiek onarpena dutela ikusi dute politikariek, hortik etekina

Nolatan normalizatu dugu pertsonak oinarrizko eskubiderik gabe uztea, beren jatorriagatik?

Kolektibo migratzaileek mugimendu indartsua abiatu zuten, gobernuari eskatzeko egoera irregularrean dauden guztien egoera legaliza dezatela

atera dezaketela (‘migratzaileak bortxatzaileak dira, dirulaguntzetatik bizitzera datoz, lana kentzen digute’), hein handi batean krisi ekonomikoak eraginda eta beste hein batean gizartearen aniztasuna handitu egin delako eta hainbatek

mehatxutzat ikusten duelako aniztasun hori”. Horrela azaldu zuen ARGIA n Moha Gerehou aktibistak. Mantra populista aitindari izan genuen Javier Maroto Gasteizko alkate ohia, eta Baba Mbye Mboloko kideak ohartarazten duen moduan, politikariek ardura handia dute, “gero jendeak pentsatzen duelako legitimituta dagoela etorkinak erasotzeko”. Irain nahiz eraso fisiko, gorroto-delituen rankingean eraso arrazista xenofoboek hartzen dute lehenengo postua Euskal Herrian.

Eta jazarpen legal, instituzional, diskurtsibo eta fisikoari Poliziaren gehiegikeria gehitu behar zaio. Kolektibo arrazializatuak maiz salatu du jasaten dutena: justifikatu gabe kalean gelditzea, atxilotze ilegalak, sarekada polizial arrazistak, etxe atarian miaketa umiliagarriak, bizigarritasun baimena dutenen etxebizitzak ilegalki hustea inongo agindu judizialik gabe eta indarrez... Azken finean, botere abusua eta bortizkeria. “Atzo bertan, Bilbon, lau beltz ikusi nituen paretaren kontra Poliziak miatzen zituen bitartean. ‘Zergatik dira beti beltzak eta ez zuriak?’, galdetu nien; ‘zuriak legalak dira’, erantzun zidaten poliziek, beltz izateak zuzenean ilegal izatea esan nahiko balu bezala. Niri, egun batean bai eta hurrengoan ere bai, dokumentazioa eskatzen didate, kolore guztietako poliziek. Beltza naizelako”. Khadim Sambe Mboloko kidearen lekukotza da.

Diskurtso erreakzionarioen aldean, diskurtso alternatiboak garatzeko deia egin du Moha Gerehouk, justizia sozialaren aldeko borrokan batzeko deia. Guk, harro astintzen jarraituko dugu leloa, kolore guztietan, kamiseta, jertse nahiz poltsetan: inor ez da ilegala, *amul been nit ku leegalul!* Bouba Dioufek garbi du: “Elkartasun indarra behar dugu, elkarrilaguntzea, atzean inor gera ez dadin”. ●



Amasa-Villabonan  
euskaraz gara!

## Abenduak 3

12:00etan

**Tolosaldean behin?** lehiaketa

Ondoren

**Euskararen aldeko argakia**



“ ”

# Euskararen auzia nerabeena baino gehiago da helduena

**Jaime Altuna**

**EHUko irakaslea eta ikerlaria**

Jaime Altunak *Hizkuntzaren funanbulistak. Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta* doktoretza tesia uztailen bukatu du. Gaiaren ezagutza sakonetik eta aurrez beste ikerlariak idatzitakotik hurbildu da begirada berezi bezain zorrotzaz Gipuzkoako zenbait herritako kirol eta dantza taldetako nerabeak entzutera. Askok ikasi duela dio eta tesian hori islatzen saiatu da.

ASIER BASURTO ARRUTI | DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**Hiru elementu konplexuren arteko harremanaz idatzi duzu tesia: nerabezaroa, generoa eta hizkuntza. Zertan datza konplexutasun hori?**

Akademian lanean hasi aurretik, haurren, nerabeen eta gazteen aisialdiaren eremutik nator. Ikusten dut eremu hori asko aipatzen dela, baina gutxi dagoela ikertua. Oso eremu handia da eta galdu egiten gara. Aipatzen da aisialdian hizkuntza politikak egin behar direla, baina ez dakigu zer den eremu hori eta nola jokatu behar dugun.

Nerabezaroak, kategoria bezala, euskararen biziberritze prozesuan karga handia izan du eta gaur egun ere badu; karga negatiboa.

Generoaz, berriz, asko hitz egin da azken hamarkadan. Zenbait jende badabil eta niri ere interesgarria egin zait horretan ikertzea.

**Euskararen biziberritzean gabiltzanon artean asko hitz egiten**

**da “gazteen auziaz”, baina gai hori kokatzean eta problematizatean zailtasunak daudela aipatzen duzu. Zertaz ari zara?**

Euskararen biziberritze prozesua instituzionalizatzean eta hizkuntza politika publikoak egiten hastean, planteatzen da ildo nagusi gisa eskolaren bitartez belaunaldi berriak euskalduntzea. Urteen ondoren, irakurketa batera heldu gara: “Nerabe eta gazteak euskalduntzen ari gara, baina ez dute erabiltzen.” Nik uste dudana da lotura duela gizartean nerabezaroa eraikitzeke moduarekin. Nerabezaroak, kategoria moduan, ehun urte pasatxo ditu eta kategoria problematiko gisa eraiki da. Kezka, krisia, kontra, desoreka... beti arazoekin lotuta dago. Euskararen kasuan bi kontuak daude, batetik, ez direla espektatibak bete, eta bestetik, nerabezaroa beti lotzen dela arazoekin. Saiatu naiz nerabeen ikuspegitik hori dena nola bizitzen den ulertzen.

**Aipatzen duzu gizarteak beraiei buruz eraiki duen diskurtsoa, neurri batean behintzat, barneratu egin dutela nerabeek.**

Bai ikerketa honetan eta bai beste batzuetan ikusi dugu nerabeek bere egin dituztela diskurtso horiek. Eta, modu batean, performatu egiten dituzte. Haiengandik espero diren rolak jokatzen dituzte, eta batzuetan, oso modu esajeratuan: kontra egin behar dute, transgresioa... Hizkuntzaren gaian erdarakadak kontzienteki sartzen dituztela diote. Eta, agian, gero ez dituzte sartuko.

**Esango zenuke, hizkerari dagokionez, kode aldaketa dela gazte horientzat gazte hizkeraren ezaugarri nagusia?**

Bai. Garbi ikusi dut kode aldaketa dela nerabezaroan hizkera aldetik ematen den ezaugarri nagusia. Gazteen artean hizkuntza normala hizkuntza nahasia dela esaten dute. Euskara eta gaztelania nagusiki, eta ingelesa beste maila ba-

tean. Hizkeran hainbat faktorek eragiten du: familia, herria, parte hartzen duten taldeak... Toki batzuetan kode aldaketa izango da erdarazko hitz batzuk sartzea euskarazko jardunean; eta beste toki batzuetan alderantziz, ia gaztelaniaz aritzea euskarazko hitz batzuekin. Baina euskara hutsean hitz egitea nahiko hizkera markatua da; gazte hizkeran jarduteko gaztelaniazko hitz batzuk sartzea beharrezkoa ikusten dute. Eta zenbait herritan, gaztelania hutsez jardutea ere nahiko markatua da; beharrezkoa da euskarazko hitz batzuk sartzea.

### **Horrela hitz egitea, bat ala beste aukeratu beharra, erresistentzia egiteko modu bat dela diozu.**

Kathlyn Woolarden ideia da. Sinkretismo modu aktibo baten gisan definitu izan du berak, Katalunian ikusitakoaren gainean. Ni ere ondorio horretara heldu naiz: “Ez dut aukeratu nahi. Ikusten dut gure gizartean biak daudela”. Bat aukeratu eta hori bakarrik erabiltzeak marka ideologikoa ematen du. Beraz, hautua da ez hautatzea. Eta zenbait elkarrizketatan atera izan denetik ondorioztatu dut badela helduei esateko modu bat: “Zuek argi duzuen arte ez eskatu guri erabakitzeke”. Hor badago protesta edo kritikaren elementua.

### **Zein espaziotan eta nola eraikitzen da gazte kultura? Aztertu dituzun gazteek gazte kultura bakarra partekatzen dute?**

Bada gazte kultura global bat, denek partekatzen dutena, baina gazte azpikultura asko daude horren barruan. Hizkuntzari dagokionez, sarritan ez diogu begiratzen kultura global horri. Gaur egun gazteak erabat txertatuta eta eroso daude gazte kultura globalean. Ez du axola herri txiki arnagunekoa edo euskarak presentzia txikiagoa duen hirikoa izateak. Erreferentzia kulturalak denengana helitzen dira eta hizkuntza aldetik denengan dute eragina. Iruditzen zait hizkuntza-praktika eta ideologiak aztertzeke marko horretan kokatu behar garela, beraiek marko horretan ari direlako eta hizkuntza hautuak begirada horrekin egiten dituztelako.

### **Hizkuntza ideologiak erakusten dituzten jarrera esplizituei dagokionez, zein dira multzo nagusiak?**

Euskararen aldekoen artean, batzuk identitatearekin lotutakoak dira;



“Euskararen feminizazioaz baino gehiago, gaztelaniaren bidezko maskulinitatearen eraikuntzaz hitz egin behar dugu.”

**“ ”**  
***Gazteen mezua da:  
 helduok aldaketa  
 handi bat egiten ez  
 duzuen bitartean,  
 guk ezin dugu egin***

1970eko hamarkadatik hona sortu den ideologian kokatzen dira. “Euskara da nire hizkuntza”, “euskara da euskaldun egiten gaituena”... Hizkuntza gutxitua izatearena ere agertzen da: arriskuan dagoela, zaindu behar dela... Batzuetan erromantizismoa agertzen da: zaharra dela, altxorra dela, ahaidetik ez duela... Eta funtzionatzen dute neurri batean. Ideia horiek eskolaren bitartez zabaldu dira eta hortik jaso dituzte, nagusiki.

Beste aldean daude liberalismo linguistikoaren diskurtsoak. Nire ikerke-

tan ez dut topatu diskurtso esplizitua dioena euskarak ez duela ezertarako balio. Asko agertu zaidana da “bakoitzak nahi duena” diskurtsoa. Oso hedatuta dago eta ez da gizar-te-ezaugarri zehatz batzuen araberakoa. Indibidualismoarekin erabat lotuta dauden argudioak dira.

Bi multzoetako diskurtsoak zirkulazioan daude, ez dute pertsona batzuk ideologia bat eta besteek bestea, agertu daitezke nahastuta pertsona beraren baitan. Egoeraren arabera dinamismoa dago.

**“Ulertu eta pasu” bezala izendatu duzun diskurtsoa ere aurkitu duzu.**

Bai. Ulertzen dute eta onartzen dute eskolak euskara sustatzea eta beraiei euskaraz hitz egiteko eskatzea. Baina eskolaz kanpo gaztelania erabili nahi badute, inork euskaraz hitz egiteko eskatzea ez dute hain erraz onartzen. Norbaitek euskaraz aritzeko esaten badie, ulertzen dute zergatik, baina ez dute beti obeditzen.



**Emakumeek euskara gehiago erabiltzen dutela diote hainbat ikerketak; gainera, zenbat eta gazteago izan, alde hori handiagoa da. Hizkuntzarekiko bizipen desberdinak dituzte neskek eta mutilek?**

Erabilera mailan oso alde txikiak ikusten dira, baina ia beti agertzen dira. Horren zergatiak gutxi ikertu dira. Nazioartean gaiaz ikertu denaren sintesia egin dut tesian. Gurea bezalako testuinguruetan ezin da ondorio orokorrik atera. Testuingurua eta garaiaren arabera arrazoi desberdinak agertzen dira.

Gure kasuan ikusi dut egoera baldintzatzen duten praktikek eragina dutela hitz egiteko moduetan. Jarduera batzuk gehiago lotzen dira mutilekin eta besteak neskekin; eta horrek eragina du hizkuntzan. Gorputzarekin eta mugimenduarekin lotuta, kirolean, hitz egiteko modu azkarra, esamolde laburrak eta indarrarekin lotutakoak erabiltzen dira; maskulinitatearekin lotzen dira horiek eta gure inguruan gaztelaniarako joera ikusten da. Irainak, isekak, txantxak eta horrela-

koetan gaztelania gehiago sartzen da. Eta mutilak legitimatuago sentitzen dira horiek erabiltzeko. Ez dut esan nahi neskek erabiltzen ez dutenik, baina ez dira hain legitimatuta edo eroso sentitzen.

**Historikoki emakumeari euskararen ardura egotzi zaiola esan izan du zenbait ikerlarik lehenago. Horrek jarraipena du gaur egun?**

Hizkuntza gutxituetan eta migrazio fenomenoetan gertatu izan den zerbait da emakumeei ematea jatorrizko hizkun-

**Euskara.  
Kultura.  
Mundura.**

ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA

f t y in  
www.etxepare.eus



tza mantentzeko eta zaintzeko ardura. Lotuta dago orokorrean emakumeari eman zaion rolarekin. Euskal abertzaletasunaren sorreratik ere, emakumeen ardura politikoa hizkuntzaren zaintza izan da, amaren eta andereñoaren ikuspegitik. Transmisioa emakumeen esku uztearena ardura bat izan da, baina baita karga ere. Hizkuntza sozialki egoera txarrean egon denean ere, leporatze bat ekarri die.

Momentu honetan horren isla bada-goela ikusi dut. Zeinbait eskolatan sortzen diren euskara taldeetan neskek parte hartzen dute eta mutilek apenas. Eskola eta hizkuntzaren arteko lotura dago, eta baita emakumeek eskolan duten zereginarekin lotura ere. Gainera, talde horien jarduera batzuetan zaintzarekin lotuta dago; hizkuntzaren zaintzaz gain, eskolako gazteagoekiko harremanaren bidez, esate baterako. Onintza Legorburu ikerlariak ikusi du hizkuntzaren gaia 1970eko hamarkadan oso politizatuta egotetik, diskurtso infantilizatuagoetara pasa garela, eta hori ere egon liteke gaiaren feminizazioaren atzean.

### **Feminizazioaren eta euskararen prestigio faltaren artean lotura dagoela iradokitzen duzu.**

Nerabeen artean behintzat, euskararen alde agertzeak sozialki, sinbolikoki, ez du irabazirik ematen. Mutilentzat behintzat, desaktibatzailea da. Baina askoz gehiago ikertu behar dugu, aldaketak gertatzen ari direlako. Maskulinitatearekin lotutako balioek indarra dute, baina feminismoaren aldarriak gero eta onartuago daude gizartean, eta ikusi behar dugu zer ekarriko dion horrek euskarari.

Euskararen feminizazioaz baino gehiago, gaztelaniaren bidezko maskulinitatearen eraikuntzaz hitz egin behar dugula uste dut. Nerabeek heldu bihur-

“ ”

## **Gazteentzat euskara hutsean hitz egitea nahiko hizkera markatua da, eta zenbait herritan, gaztelania hutsez jardutea ere nahiko markatua da**

tzea gaztelaniatik pasatzearekin lotzen dute. Euskararen alde aktiboenak diren neska nerabeen diskurtsoetatik jaso dutana da mutilei eskatzen dietela beraiek ere euskararen alde aktibatzeke.

### **Nerabeen praktika linguistikoak beraien baldintza sozialen emaitza huts gisa ulertzea gaitzesten duzu.**

Euskararen auzia nerabeena baino gehiago da helduena. Gazteen mezua da: zuek aldaketa handi bat egiten ez duzuen bitartean, guk ezin dugu egin. Gazteengandik espero dugu heldu bihurtzea, baina gaur egun heldu izateak inpliketzen du gaztelaniatzat egitea.

Nerabe gazteei buruz asko hitz egiten dugu, baina beraiekin hitz egin gabe. Ez diegu eskaintzen auzi honetan parte aktibo izateko modurik, gauzak beraiek pentsatzen duten bezala egiteko aukerarik. Agentzia hori aitortu ezean, alferrik gabiltza. Hausnarketa maila handia dute eta gehiago entzun behar diegu, asko ikasten dugulako beraiegentzat.

### **Gazteek, soka gainean dabilen funanbulistaren gisan, zein arrisku sentitzen dituzte?**

Galwayko parke batean batzuk *slackline*-a [lokarri baten gainean oreka mantentzean datzan kirola da] praktikatzen ikusi nituenean bururatu zitzaidan gazteen euskararekiko egoeraren antzekoa zela. Alde batetik, euskaraz hitz egiteko mezua jasotzen dute; ondo eta zuzen egin behar dutela, gainera. Helduek sarri esaten dute gazteek gaizki hitz egiten dutela: euskalkia oker erabilia, erdarakadak sartuta... Jatorri euskalduna dutenek presio hori dute. Eta hitzuen berriak ere, hizkera hori ez dutela ikusirik, zalantza horretan bizi dira. Beste ikerketa askotan ere agertu da. Gainera, sarerik gabe dabiltzala planteatzen dut. Euskaraz egitera ausartu eta eroriz gero eutsiko dien sarea falta dute. Josiko bagenu sare bat hanka sartzen duenari edo euskararen erabilera erabatekoa eta bikaina egiten ez duenari eusten diona, agian ausartuko lirateke.

### **Nola josi sare hori, ordea?**

Nik planteatzen dudana da, paradoxi-koki, fokua gazteengandik kentzen hasi behar dugula. Helduen esparruan eragitea da lehentasuna. Eskolaren lana ez badugu lan-munduarekin eta helduaro-ko egitura materialetan egiten denarekin osatzen, eskolako lana oso ona izanik ere, ezinezkoa da aurreratzea.

Eremu ez-formalean ere hizkuntza politika eta plangintza sendoak aplikatu behar dira. Horretarako, lehenik ondo definitu eta bereizi behar dira eremu ez formala eta informala. Eremu ez formalean plangintza zehatzak eraikitzen joan behar dugu. Hasteko ikus-entzunezkoen eremuan, kirolaren esparruan... Baina modu egituratu eta zabal batean. ●

Doktoretza tesia:



**Irurako udala**

San Migel plaza 1, 20271

udala@irura.eus

www.irura.eus

“ ”

# Larrialdi humanitarioa da, eta katastrofea ez da naturala, administrazioak eragin du

## Houda Akrikez

Madrilgo Cañada Real auzoan bizi da Houda Akrikez (Tanger, 1982) Tabadol elkarteko presidentea, Puerto del Sol plazatik hamasei kilometrora. Hiru urte daramatzate auzoan argindarrik gabe 4.000 lagunek, tartean 2.000 haurrek, Naturgy enpresak hornidura elektrikoa eten zietenetik. Hernaniko Harian erresistentzia zinemaldian eman dute Guillermo Garcíaren *Aunque es de noche* film laburra, Cañadako errealitatea erakusten duena; bertan izan da Akrikez, auzoaren egoeraren eta borrokaren berri emateko.

 IRATI IRAZUSTA JAUREGI  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### 2020ko urriaren 2tik hornidura elektrikorik gabe zaudete auzoan. Zer dago horren atzean?

Gure etxeetatik indarrez aterarazi nahi gaituzte. Madril hego-ekialderantz ari da hazten, ez dago hiria handitzeko beste modurik, eta hor Cañada Realek enbarazu egiten du; ziur gaude Vallecasko zabalguneko, Los Ahijonesko eta Berrocaleseko hirigintzako promozio handiekin duela zerikusia. Horren atzean Madrilgo Udala eta Madrilgo Erkidegoa daude, baina baita Espainiako Estatua bere osotasunean ere, eskubide urraketa horien konplize delako. Jada hiru urte eta lau negu daramatzagu egoera horretan.

### Nolako baldintzetan bizi zarete?

Ezin ditugu hozkailua eta garbigailua

erabili, ez dugu ur berorik, ezta berogailurik ere. Haurrek ezin diote eskolako erritmoari eutsi ikasgai guztiak gela bertan daudelako eta ez daukatelako wifirik eta gailu elektronikoak kargatzeko aukerarik; lanak egiteko kandelak pizten dituzte, eta horrek erredurak egiteko edo zerbaitek su hartzeko arriskua dakar. Horrez gain, Madrilgo Udalak ez ditu auzoak garbitzen eta zaborra kallean botata dago eta etxebizitzak ilegalki eraisten dituzte; gertatu izan da norbait oporretara joan eta itzultzean etxebizitza botata egotea, udalak eta erkidegoak erabaki dutelako etxe hori abandonatuta dagoela. Gisa horretakoak maiz gertatzen dira auzoan.

Cañadako 5. eta 6. guneei eragin die gehien argindarraren mozketak; oinez

hiritik 45 minutura daude, isolatuta. Baina Cañadan ez dago dendarik, eta hozkailuetan ezin dugu janaririk eduki, beraz, erosketa maiz egin behar dugu. Arropak eskuz garbitzen ditugu, ontziak ur hotzetan, umeak dutxatzeko ura kazoletan berotzen dugu eta, hala ere, dutxak hotzak egoten direnez, haurrak maiz gaixotzen dira. Seme-alabak gaixotzen badira emakumeok ezin gara lantokira edo ikastera joan... Horrek guztiak aktibista eta feministok orain arte egin dako borrokan atzerapauso nabarmena eragin du.

**Emakumeei eragiten dizue gehien eta, aldi berean, zuek zarete neurri handi batean egoera horren aurka borrokan ari zaretenak.**



Familia-kontziliazioa oso astuna egiten zaigu, etxeko zama gure gain hartzen dugu eta ez dakigu nola egin borrokari ere denbora eskaintzeko. Argindarra moztu aurretik ere antolatuta geunden; Tabadol emakumeon elkarte 2007an sortu genuen, emakumeei euren komunitateko lider izateko tresnak emateko helburuarekin. Lan handia egin genuen horretan, baita emakume marokoar eta ijitoen integrazioan ere, Madrilgo komunitatean integra zitezten.

Hornidura elektrikoa etendakoan aurrenak izan ginen borrokarako deia egiten, eta elkarte erakunde, elkarte eta norbanako politiko askorekin saretu da. Elkarrekin saiatu gara auzoko egoera gizarteratzen eta protesta egiten; hasieran egunero manifestazioak egin genituen hogeita sei egunez jarraian, eta, pixkanaka, antolakunde eta norbanako gehiago batu dira. Civica plataforma sortu dugu, eskubide urraketak salatze-ko eta argindarraren aldeko borroka babesteko. Giza eskubideekin konprometitutako 65 elkarte baino gehiago elkartu gara, eta manifestu argia kaleratu dugu, honakoa eskatzen: "Argindarra orain, kontratuak eta jarraipen-mahaia".

Lehenengo puntua, argindarrarena, ez dugulako onartzen Madrilgo auzo batean hornidura elektrikorik gabe egotea. Kontratuak, hiritar gisa onartuak izan nahi dugulako, eskubidedun subjektu gisa, gure hornigaiak ordaintzeko aukera izan dezagun. Azkenik, jarraipen-mahaia, uste dugulako ezin dugula Cañada Realgo auzoan aurrerapenik egin bizilagunok eta Madrilgo Erkidegoa koordinatuta egon gabe; gure auzoaren gainean hartzen diren erabakietan auzokideok bertan egon behar dugu.

### **Nola eragin du osasunean hainbeste denboran argindarrrik gabe bizitzeak?**

Osasun fisikoari dagokionez, izozte sintoma asko izan dituzte haurrek eta jaioberriek; Filomena ekaitzean sei hila-beteko haur bat hil zen horregatik. Hottzarekin eta hezetasanarekin handitu egiten da arnas-aparatuko infekzioak agertzeko arriskua, eta gisa horretako gaixotasun kronikoak dituztenen osasuna asko okertu da, besteak beste, ezin dutelako sare elektrikora konektatuta egon; pertsona diabetikoek ezin dituzte sendagaiak ongi kontserbatu hozkailuan...

Baina batez ere buru-osasunean eragiten du, gehienbat emakume eta umee-

tan, gu baikara baldintza horietan dau- den etxeetan denbora gehien igarotzen dugunak. Gogoan dut Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioaren atarian nerabe gehienek depresioaren aurkako pilulak hartzen zituztela, antsietateagatik. Ikas- keta maila altua zuten ikasleen erren- dimendua nabarmen jaitsi da eta izan nahi dutena ikasteko aukerarik ez dute. Oso auzo gaztea da Cañada, eta familia bakoitzak batez beste hiru seme-alaba izaten ditu. Haur eta nerabe horiek etor- kizunerako helburu eta ametsak dituzte, baina eguneroko egoerak zaildu egiten die horiek lortzea.

Sir(a) Tratu Txarren eta Torturaren Biktimei Laguntzeko Zentroak txosten bat egin zuen Cañada Realgo bizilagunok bizi genuen egoerari buruzkoa, eta ondorioztatu zuen “ingurune tortura- tzailea” dela; sentitzen dugu etengabeko tortura ari garela bizitzen. Elkarrizke- tatuen erdiak baieztatu du buru-osasun- eko arreta behar duela, eta %15,7ak jarraikortasunez pentsatzen duela sui- zidioan. Carlos III.a unibertsitateko Oi- narrizko Eskubideen masterreko ikas- leekin elkarlanean aritu gara, eta haiek ere txosten bat egin dute gure egoera aztertzen eta salatzen.

**Civica plataformak Espainiako Esta- tua salatu zuen Europako Kontsei- luko Eskubide Sozialen batzordean, hornidura elektrikoa eteteagatik. Zein ibilbide izan du salaketak?**

2022ko urrian jaso genuen erantzuna: bizitzen ari gara eskubide urraketa gisa definitu zuen batzordeak, eta adie- razi zuen ezin dela onartu European baldintza horietan bizi den gizarterik. Horregatik, Espainiako Estatua estu- tu zuen hornidura elektrikoa bereha- la ezartzeko. Hark, ordea, erantzun du ezin duela argindarra berrezarri ehun



OLMO CALVO

“ ”

Gure etxeetatik indarrez aterarazi nahi gaituzte”

elektrikoa zahartuta dagoelako eta bi- zilagunak arriskuan jar gaitzakeelako. Cañada Realek 50 urte ditu; zergatik ez da egon arriskurik azken 50 urteetan? Gainera, adierazi zuen gezurra dela sa- laketan esan genuena, bizilagunoi ez zai- gula ezer falta. Erantzunari alegazioa aurkeztu genion, eta orain batzordearen erantzunaren zain gaude. Esperantza handia dugu Europar Batasuneko bat- zorde horretan.

**Espainiako Estatuan egin duzue salaketarik?**

Madrilgo Erkidegoaren eta Naturgy hornidura enpresaren aurkako salaketa jarri genuen instrukzio epaitegian, eta hor ere arrazoa eman digute. Probin- tzia auzitegiak agindutako adituaren txostenak erakusten du tentsio altuko dorreetan aparatatu batzuk jarri dituzte- la indarra mugatzeko, etxebizitzetara ez dadin iritsi behar adina. Txostenak ikusita, Herriaren Defendatzaileak ber- retsi du Cañadako larrialdi huma- nitarioa dela eta Espainiako Estatuari tresnak eman dizkio argindarra berre- zartzeko. Hala ere, ez dugu lortu argia itzul dadin.

Auzoko hurrek 65 gutun inguru ida- tzi zituzten haien egunerokoaren berri ematen, eta horiek helarazi dizkiegu Nazio Batuetako sei errelatoreei, Ma-



Elorriko udala

# Euskara

*gehiago, gehiagogaz, gehiagotan*

Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia) | 946 58 27 12 | euskara@elorrio.eus | www.elorrio.eus

drilgo alkateari, erkidegoko presidenteari eta Madrilgo Erkidegoko Cañada Realgo ordezkariari; 2021eko abenduan Madrilgo udaletxearen aurrean irakurri genituen.

Nazio Batuen Erakundeak ere arrazoia eman digu; eskubide sozialekin konprometitutako nazioarteko erakunde guztiek arrazoia eman digute, Espainiako Estatuak izan ezik. Herriaren Defendatzaileak esan bezala, gertatzen ari dena larrialdi humanitarioa da eta katastrofea ez da naturala, administrazioak eragindakoa baizik.

### Salaketa formal horiez gain, zein ekintza egin dituzue?

Ekintza politiko, sozial eta kultural asko egin ditugu, guztiak hornidura elektrikoaren etetea salatzeko. Esate baterako, 4.000 kandela piztu genituen ondorioak jasaten ari garen 4.000 auzotarron omenez, honako esaldiarekin: "Gu itzaltzen ari dira". Gabonetan, Madrilgo Udalak milioika euro erabili zituenean kaleak zentzugabe apaintzeko gu hornidura elektrikorik gabe geunden bitartean, Boamistura elkar-tearekin batera kalearen zati bat argiztatu genuen "borrokan jarraitzen dugu, ilunpetan jarraitzen dugu, argindarra Cañadarentzat, kontratuak nahi ditugu" aldarrikatuta.

Azken urtean parke bat eraiki dugu Todo Por la Praxis taldearekin batera, umeez pedalei eragiten dieten bitartean "argiarekin ez da jolasten" kartera argiztatzeko duena. Horrez gain, *400 días sin luz* (400 egun argirik gabe) antzerki obran parte hartu genuen auzoko hiru emakumek, eta gure artean ere egin dugu obra txiki bat, *Los nombres del miedo* (Beldurraren izenak) izeneko. Horiek dira egin ditugun ekintzetako batzuk.



“ ”

Eskubide sozialekin konprometitutako nazioarteko erakunde guztiek arrazoia eman digute, Espainiako Estatuak izan ezik”

**Argia moztu aurretik nolako tratua jasotzen zenuten instituzioen aldetik?**

Cañada Real beti aritu izan da borrokan, hornidura elektrikoaz gain bestelako oinarrizko eskubideak ere urratzen direlako: osasungintza, hezkuntza, asfaltatzea, arreta sozial eta komunitarioa... Baina aldea nabaritu dugu duela hiru urtetik hona, hain zuzen, Madrilgo Erkidegoko gobernura PP iritsi zenetik. Aurreko gobernuarekin elkarriketak izan genituen, baina oraingoarekin ezinezkoa da. Mila aldiz eskatu dugu erkidegoko presidenteari bilera bat, baina ez digute kasurik egiten, haienztzat gaizkileak baino ez gara. Naturgy enpresarekin ere saiatu gara bilera bat lortzen, baina hori ere ez dugu lortu. Oso estigmatizatuta dagoen auzoa da, eta Espainiako hirugarren mundua islatzen du: muturreko pobrezia, maila instituzionalean eta sozialean. ●

  
 Usurbilgo Udala  
**Usurbilgo Udala**  
 Joxe Martin Sagardia plaza  
 943 37 19 51 erregistroa@usurbil.eus  
[www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus)

# AZOKAKO POSTUTIK BEGIRA



**BALERDIPEKO ERLEAK**  
MATTIN JAUREGI ETA  
INAXIO ARIN

**G**oizean goizetik norbere postuan aste gutziko lana mahai gainean jarriz. Bateko bezperan bildutako aza, azenario, sagar eta intxaur, besteko hilabete ontzen edukitako gazta edo ezti ontziratu berria. Hasi dira joan etorrian karro, kapaxo eta motxilak. Bati fruta erosi, besteari ogia, lagunekin izango duen bazkarirako menua prestatu...

Baina nor da azokara gerturatu dena bere erosketak egitera? Karrorik gabe, eskuak atzean ikusmira dabilenak ia postu guztietan esaten ditu kontuak baina erosketarik ez du egiten, eta karrro handia daramanak jendea izango du bazkaltzen, denetik sartzen baitu bertan.

Azoka ez da toki txarra kontuak esateko eta entzuteko, galdetzeko zergatik ez zaizkion norberari postukoak bezain porru ederrak atera, edo zergatik dagoen ezta aurreko astekoa baino ilunago...

Tratua zuzena da erosle saltzaileen artean, izenez ez bada baserriaren



EUSKADIGASTRONOMICA.EUS

Tolosako azoka, larunbata goizetan.

izenez ezagutzen gaituzte astero pasatzen direnek. Baloratzen dute produktua, ekoizlea eta tratua, baita guk beraiek ere. Azokako erosleek mantentzen baitute lehen sektorearen zati bat bizirik.

Beharrik ez duten erosleak ere pasatzen dira postutik, "aste honetan ba-

dut ezta eta hurrengoan erosiko" duela esatera. Ez al da zoragarria?

Horregatik egiten dugu lan, ilusioz beterik azokan produkturik ederrenak edukitzeko, gure erosleen arteko tratuak hartu emanean jarrai dezan.

Badakizu, tarterik baduzu pasa azokatik: bada zer ikusi, ikasi eta erosi. ●



## A ZE FAUNA!

# GORBATADUN INTSEKTUJALEAK



**NEREA PAGALDAI AGIRIANO**  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

**K**askabeltz diogunean zein txori etortzen zaigu burura? Seguruenik, ez dugu bat egingo! Izan ere, Euskal Herrian txori espezie bati baino gehiagori deitzen diogu kaskabeltz. Baina zein da kaskabeltz "jatorra", "autentikoa", "originala"? Kaskabeltz handia (*Parus major*). Identifikatzen oso erraza da: burua, izenak dioen bezala, beltza du, bi masail txurirekin batera. Bularra, aldiz, horia, atentzioa deitzeko modukoa. Gainera, espezie elegantea dela esan dezakegu, gorbata beltz elegante-elegantea darama-eta, baina ar eta emeen gorbatak ezberdinak dira: arrek gorbata zabal eta luzea daukate, sabelalde guztia zeharkatzen diena; emeek, aldiz, gorbata finagoa daukate, eta batzuetan, ez die sabelalde guztia zeharkatzen.

Zuhaitziak ditu gustuko eta inguru anitzetara moldatu da: adi egonez gero, herri eta hirietako parkeetan ere erraz ikusiko dugu. Mendian, basoetan ere aurkitu dezakegu, eta nola ez... baserrietako fruitu arbolak eta ortuak ere gustuko ditu! Janagatik izango ote da? Dietaz intsektiboroa da, gehienbat intsektuz elikatzen da: kakalardo, liztor eta inurriak jaten ditu, besteak beste. Udaberrian tximeleta eta sitsen beldarrak jatea gustatzen zaio, eta udazkenean sasi, intsusa eta abarren fruituak. Ortuak batzuetan hankaz gora jarri dizkielako ezagutuko dute seguruenik baserriarrek kaskabeltza. Baina haziez gain, bertako beldar eta intsektu asko ere jaten dituela aipatu beharra dago. Beldarrak hain ditu gustuko, kontrol biologiko gisa ere erabili izan baita kaskabeltza, bere lehengusu amilotxekin (*Cyanistes caeruleus*) batera. Izan ere, bikote



CHARLES J. SHARP / WIKIMEDIA COMMONS

bakar batek umaldi garaian batz bestea 134 aldiz bazkatzen ditu txitoak eguneko eta hori gutxi balitz, ugaltze sasoioko eta hektareako 11.000 intsektuz elikatu daiteke.

Hegazti hau troglodita da, eta ez, ez nabil irainka, troglodita izateak habia zuloetan egiten duela esan nahi du. Hau dela-eta, zuhaitz zahar xamarrak behar ditu, zuloak dituzten horietakoak, bertan kumutzen baitu. Baina gure herri zein hirietako parkeetako zuhaitzei begirada bat botaz gero, ikusiko dugu zuhaitz gehienak gazteak direla, zulorik gabeak alegia. Hori dela-eta, leku batzuetan habia kutxak jarri izan dituzte, zuhaitzak gazteak izan arren bertan habia egiteko txokoa izan dezaten kaskabeltzek eta bera bezala trogloditak diren lehengusu amilotxek. Baina habia kutxa jarri baduzu eta beste batzuek erabili badute... neguan zehar garbitu ezazu! Nahiko finak dira eta ez dute kutxa edo zuloa bi

aldiz segidan erabiltzen, garbia ez baldin badago behintzat.

Sasoi berean bi edo hiru txitaldi egin ditzake kaskabeltz bikote batek, bakoitzean zortzi eta hamairu arrautza bitartean errunez. Emeak bakarrik txitatzen ditu arrautzak 12-14 egun artean eta behin jaiota, berriz, bi gurasoek bazkatzen dituzte txitoak. Hauek arrautzatik irten eta hiru astetara egiten dute salto habiatik, inguruko adaxketara, baina oraindik aitatxo eta amatxori jana eskatuz. Sei edo zazpi astetara lortzen dute independentzia.

Gure kaskabeltz jatorra zorteduna dela esan dezakegu, ez baitago desagertzeko arriskuan. Baina badauka mehatxu bat: basotiarra dela esan dugu, eta ez ditu pinudiak oso gustuko (bere lehengusu batzuek ez bezala). Baso landaketa exotikoak ez ditu gustuko, eta horien garapenak, eukaliptoarenak batez ere, espeziearen ugartasuna murriztea eragin dezake. ●

## KASKABELTZA *Parus major*

**TALDEA:** Ornoduna / Hegaztia

**NEURRIA:** Moko-isats 13,5-15 cm.  
Hegotik hegora 22,5-25,5 cm.

**NON BIZI DA?** Basoan, zuhaitzdun parkeetan, fruitu arboletan.

**ZER JATEN DU?** Koleopteroak, himenopteroak, beldarrak, fruituak.

**BABES MAILA:** European babestua.

# EUSKAL KANTARIEN EZTARRIA



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

U rte sasoi ederra dator kantari-entzat. Neguko solstizioaren inguruko senide arteko otordu mordotan, asko izan ohi dira kantauk jotzera ematen direnak. Predikatzaileen sasoa ere bada, nabarmena erlijio aprobetxategien solstizio besteratuan, bereratuan. Eztarri-zuri edo eztarri-beltz, berdin dio, eztarriari eragin behar handirik gabe izango da sermoi eta kantu batean eta bestean, kioa aurrea, kioa atzera, zintzur bustitze oparoen ondoren, jeneralean.

Kantariak ikasi du eta badaki. Kantuan azaldu, nabarmendu eta gailendu nahi badu, eztarria eta ahots-hariak zaindu beste aukerarik ez du. Eta ikasi du, ikasi duenez: edari ez hotz ez beroegi, lepoa estalita, gutxi hitz egin –alferrik ez behintzat– eta abar. Aspaldiko eskola da, ez mikro ez bozgorailurik ez zenetik datorren jakintza. Errege, obispo inkisidore, opera kantari eta sagardotegiko bertsolari.

Eztarria urratu eta ahotsa galduta-



Kanta-belarra (*Raphanus raphanistrum*).

MAURICIO MERCADANTE / CC BY-NC-SA 2.0 DEED

koan negozioa pikutara mihi dantzari. Orduan alferrik dira zaintza ahaztuak. Erremedioa behar eta horra kanta-belarra (*Raphanus raphanistrum*). Kantari-belarra izena ere jaso zuen Pio Font i Quer botanikari handiak bere 1961eko *Plantas Medicinales, El Dioscorides renovado* liburutzarreen, beste izen hauekin batera: mugarrafauna, erresaunazieta lutzarbiaze. Euskaraz soilik da, ordea, kantari-belarra edo kanta-belarra. Inguruko hizkuntzetan beste landare bat da kantuarekin lotzen dena. Euskaraz kantatzen dutenei bakarrik laguntzen ote die ba?

Font i Quer berak landarearen sendagaitasunari buruz honela dio: “Batez ere, laringearen hanturaren eta katarroen aurka erabiltzen da, batez ere erlatsari edo marrantari aurre egiteko, baita ezturen, biriketako katarroen eta abarren aurka ere, eskorbutoaz gain”. Baina ez da kanta-belarra, mendaskia baizik (*Sisymbrium officinale*) eta horri bai katalanez, frantsesez, gaztelerez, portugesez eta ga-

legoz “kantarien belarra” esaten diote, baita “predikatzaileen belarra” ere.

Non edo han bada hankasartzea, eta kantujirak eta kantubuelak sendatzeko argitzea komeni. Hiztegieileen hankasartzea dela iruditzen zait. Bi landareei tokiren batean “jaramago” esaten zaie gaztelerez eta hiztegieileen batek oker jasoko zuen eta hiztegiele kopiatzaileek errepikatu eta berrirotu eta klonatu eta doblatu eta antzeratu eta errepikatu eta nik uste hortik datorrela eztarri urradura, ezarrirainoko hankasartzea.

Gainontzeko hizkuntzetan aritzen diren eztarriak sendatzen dituen landareak ez du gure hizkuntzaren zintzurak oneratzeko gaitasunik. Eta gu kanta eta kanta, eta gure egoskorrean kanta-belarra hartzen; Font i Quer berak argi asko esan zigunari ezikusiarrena eginez: guk “kanta-belarra” esaten diogun hori, batez ere, heste-aringarria edo libragarria da.

Hiztegiele, predikatzaile eta kantari den batek ea hanka eztarritik ateratzen digun. ●



Busti ditzagun  
Hernaniko kaleak  
**euskaraz**





# “ZEREALEN ARBASOA DA ESPELTA TXIKIA, BAINA GURE INGURUAN OSO GUTXI EZAGUTZEN DA”



GARAZI ZABALETA

**N**eolitotik datorren zereala izan arren, apenas ezagutzen da gure inguruan gaur egun espelta txikia (*Triticum monococcum*). “Nekazaritza sortu zenean, ereiten hasi ziren lehen zereala izan zen espelta txikia, etxekotu zen lehena, eta horrek badu interes kultural, antropologiko eta historikoa ere”, azaldu du Andoni Estrella González Irunberriko ekoizleak. Euskal Herriatik kanpoko zenbait tokitan hasiak ziren lehenagotik zereal honen berreskuratze lanetan, baina gurean gutxi ikusi da orain arte; eta, gutxi hori, bereziki, Ipar Euskal Herrian: “Estatu frantsesean eta beste herrialde batzuetan gartuago dago ekoizpena, baina Pirinioetatik behera guttiz marginala da”, gehitu du.

## BURUJABETZARAKO BIDEA, KOLEKTIBOAN

Irunberri inguruko lagun talde bat dago espelta txikia ekoizteko proiektuaren atzean. Burujabetzarako bidea modu kolektiboan egin nahi dute, eta momentuz, sei bat etxetan ari dira antzinako zereala ekoizten, kolektiboki. “Tartean daude familia txikiak, komunitateak, herri okupaturen bat... Guretzat, espelta txikia aitzakia edo ikur moduko bat da, gauzak beste modu batean egiteko, egungo moldeetatik kanpo”, argitu du Estrellak. Jatekoa lortzeko helburua ez ezik, harremanak egitea, ingurua zaintzea, elkarlaguntza sustatzea, gogoetarako eta hausnarketarako



espazioak irekitzea eta auzokidetza eta komunala lantzea ere badituzte helburu.

Espelta txikiak gain, beste zereal batzuekin egindako ogia ere banatzen dute kolektiboko kideek inguruan. “Hemen hurbilean saltzen dugu ekoiztutakoa, baina, dena dela, gure lehentasuna ez da saltzea nahitaez: trukatzeko aukera ere badugu, eta merkatu logikatik haragoko beste edozein planteamenduri ere irekita gaude”, azaldu du. Zereal mota hau Pirinioetatik behera existitzen ezenez, gainera, prezioa jartzerakoan autonomia osoa dutela azaldu du ekoiz-

leak. “Arroz integrala hartzen dugu erreferentzia bezala, prezioak apur bat beherago jarritz”.

## ARROZ INTEGRALAREKIN ANTZA

Baina, ze ezaugarri ditu zereal guztien arbaso den espelta txikiak? “Mineral asko ditu, eta gure gorputzerako oso egokia da, erraz liseritzen da”, erantzun du Estrellak. Gaur egun glutenarekin dauden arazoan aurrean, elikagai ona dela nabarmendu du, glutena eduki arren, “gluten ona” duelako, digestioa egiteko erraza. “Ogien testura zehatz batzuk bilatzeko erabiltzen da gluten kopuru handia gaur egun, eta horrek bihurtu du glutena txarra, berez ez du zertan txarra izan”, zehaztu du.

Ekoizpen taldetik, gainera, espelta txikiarekin irina egin beharrean alea osoan jatea bultzatu nahi dute. “Erraza da alea osoan jateko, arroz integralaren antzeko

koa da, eta energia aurrezte aldera eta gure osasunari begira, hori sustatu nahi dugu”. Ekoizpena aztertuta, onartu du ia sailkapenik izan ez duen antzinako zereala izanik, etekin txikiagoa ateratzen diotela, baina kalitate aldetik, ez omen du parekorik. “Elikadurari eta osasunari begira, nik uste jan daitekeen zerealik onena dela espelta txikia”, amaitu du. Zereala eskuratu nahi duzula? Edo, informazio gehiago jaso? Bada, telefonoz haiekin harremanetan jartzea proposatzen dizu ekoizleak: 635 20 19 54 eta 680 73 28 55. ●

## DURANGOKO AZOKA



DANI BLANCO / ARGIA. CC BY-SA

## Eta zu, euskaldun jatorra zara?

### ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**E**z naiz euskaldun jatorretan jatorrena. Ez ditut betetzen urtean zehar egin beharrekoen baldintza guztiak. Lehen ere orrialde honetan esana dizue dalakoan nago, ez naizela Anariren entzule, ezta lau urtean behingo BECeke zortzi orduko zitaren partaide ere. Baina Durangoko Azokara urtero samar joaten naiz eta horrek rankingean puntu batzuk gora egiten laguntzen dit. ARGIA ere bertan izango da, noski, bere klasiko eta nobedadeekin. Zer egongo den eta non, segidan.

Kanaberak dira azken urteetako ARGIAren postuaren ikur. Sarri ez da erraza izaten nahi dugun stand-a aurkitzea eta ARGIAk topatu du urrutira ikusteko formula. Jendetzaren artean makila luzeak gora altxatzearena asmatuta zegoen lehenagotik; ala ez duzu sekula ikusi, pelikula batean bada ere, hiri handiko plazaren erdian ekialdeko turista talde bat, puntan banderatxoa duen haga luzea zut daraman gida aurrean dutela? Aurten informazio gunearen aldamen batean aurkituko duzu ARGIAren tokia: Artekale 17, 18, 19, 20 eta 21. Bost stand izango ditu: bi Bizi Baratzearentzat eta hiru ARGIArentzat. Azken honen kasuan, gainera, oraingoan mahai oso bat komunitateari irekia izango da, lasai solas egiteko espazioa. Azokatik at, An-

dra Mari elizpean *Inor ez da ilegala* guinea jarriko da, arkupearen albo batean.

### NOBEDADEAK

2023 urte oparoa izan da ARGIA eta nobedade guztiak egongo dira salgai. Liburuen kasuan, *Zaldi bat ihes garrezko zelaian*, *Planeta prekarioan*, *Hausnarrean* (2. argitaraldia) eta *Ño!* komikia. Jolasei dagokienez, *Otu*, *Hizki pizti* eta *Jarioka*. Agenda eta egutegia ezin aipatu gabe utzi, klasikoak bihurtu badira ere urtero baitute aldaketarik. Kasu honetan ARGIA *egutegia*, *Ilargia* eta *Landareak agenda* eta *Ilargiaren egutegia*.

Zaharragoek ere izango dute beren lekua, nola ez: *Bizi baratzea* (8. argitaraldia) eta *Sendabelarrek dakitena*, *Etxeko landareak* eta *Txori urdinak* (azken horiek 3. argitaraldia).

Gerturatzan ari da maite ez dugun Espainiako Konstituzioa denok ospatzeko baliatzen dugun zubia, ez dago modan egun horretan lanera joatea, autokarabana amortizatu beharra dago –euskaldun jatorraren rankingean beste bi puntu!– Baina hartu tarteren bat eta pasa Durangoko Azokatik, ziur topatuko duzula zerbait interesgarria; ARGIAko stand-ean seguru! ●

Informazio gehiago 9. orrialdean.

## ARGIA nahi dituzu?

Datorren urtean gure erredakzioan praktikak egin nahi badituzu, animatu eta aurkeztu zaitez. EHUko Kazetaritzako, Ikus-entzunezko Komunikazioko eta Giza Zientziak eta Komunikazioko 3. eta 4. mailako ikasleei zuzendutako deialdia da.

### NOIZ

Abenduak 12, 10:30ean.

### NON

- ARGIAren egoitzan, Lasarte-Orian, Zirkuitu Ibilbidea, industrialdeko 15. pabiloian.
- EHUko Leioako campuseko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, 20. ikasgelan.

Bidali e-posta bat **praktikak@argia.eus** helbidera eta adierazi bi lekuetako zeinetan nahiago zenukeen egin azterketa, **abenduaren 10a baino lehen**. Azterketara curriculumak ekarri, mesedez.


## Proposatu Argia Sarietarako hautagaiak

2024ko urtarrilean banatuko ditugun euskarazko komunikazioaren Argia Sarien prestaketa martxan da. Hautagai guztien azterketa egin ondoren, ARGIAko lantaldeak erabakiko ditu irabazleak. Bitartean, irakurleon proposamenak biziki eskertuko ditugu.

Komunikazio eta kazetaritza sariak dira, eta bost atal banatzen ditugu: prentsa, entzunezkoa, ikus-entzunezkoa, Internet eta gizarte mailako komunikazio kanpaina. Merezimenduzko sari berezia ere banatu dugu hainbat ediziotan.

Komeni da sari proposamena ahalik eta ondoen argudiatzea. Bidali proposamenak **argiasariak@argia.eus** helbidera, **abenduaren 10a baino lehen**.

# Itzalpeko emakume arkeologoen itzala



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**E**rreterria (Gipuzkoa), 1892. Aizpitar-te kobazuloetan Gipuzkoako lehen indusketa arkeologikoak egin ziren, Lersundi kondea buru zuen taldearen eskutik. Handik hamaika urtera, 1903an Alfontso XIII.a Espainiako erregeak bisita egin zuen aztarnategira, eta aitzakia horrekin argazkia egin zioten lantaldeari; argazkian ikusten da taldean emakumeak bazeudela, haien izen-abizenak iritsi ez zaizkigun arren.

Argazki horrekin abiatzen da Irungo Oiasso museoan datorren urteko martxoaren amaiera arte ikusgai izango den *Emakume arkeologoak Gipuzkoan* erakusketa.

Lehen izen-abizena Maria Luisa Aranzadirena da. Telesforo Aranzadiren senitartekoa zen eta 1917an Aralarren egindako argazki batean ageri da. Urte hartan Telesforok berak, Jose Migel Barandiaranek eta Enrique Egurenak Gipuzkoako arkeologiaren garairik distiratsuenetakoa abiatu zuten. Eta distira horren itzallean emakume bat ere bazegoen.

Handik 30 urtera sortu zen Aranzadi Zientzia Elkartea eta sorreran funtsezkoa izan zen Pilar Sansinenea (1905-1997), baita Jesus Elozegi senarrak cromlechak eta trikuharriak aurkitzeko egin zituen lanetan ere.

1960ko hamarkadaren hasieran, aldiz, Dolores Echaide (1928-2018) arkeologo donostiarra aritu zen lanean Sorrian, Torralbako eta Ambronako indusketetan. Diziplina anitzeko taldeak egindako lana erreferentzia garrantzitsua izan zen europar arkeologian, baina Echaideren lanak ez zuten merezitako aitortza jaso.

Aita Barandiaranek 1956 eta 1968 artean zuzendutako Lezetxikiko (Arrasate) indusketa ere aitzindaria izan zen, eta bertan aritu zen Ana Maria Muñoz Amilibia, Espainiako Estatuko emakumezko lehen arkeologia doktorea.

## **BIGARREN MAILAKO ARKEOLOGOAK**

1970eko hamarkadan egin ziren bi indusketek agerian uzten dute emakume



1903an Erreterriako Aizpitar-te kobazuloan egindako argazkian ikusten da indusketa lan horietan emakumeek ere parte hartu zutela.

arkeologoen lana zergatik geratzen zen itzalean. 1972an Irungo Ama Xantalengo nekropoli erromatarra ikertzen hasi ziren. Emakumeak gehiengoa ziren talde hartan; Pilar Utrilla, Ana Cava eta Teresa Andrés aritu ziren, besteak beste. Baina orduan, arkeologian, historiaurreko indusketak jotzen ziren lehen mailakotzat, eta ikerketa historikoak, erromatar garaikoak, esaterako, bigarren mailakotzat zituzten; horietan jarduten zuten gehienbat emakumeek. Gainera, Ama Xantalengo indusketa burua gizonetzkoa zen: Ignacio Barandiaran. 1979an Zestoako Amalda kobazuloan abiatuta indusketak ere gizon bat izan zuen zuzendari: Jesus Altuna. Taldean hainbat emakume aritu ziren, eta Amelia Baldeon eta Koro Mariezkurrena arduratu ziren materialak erregistratzeaz. Indusketen ondoren, aztarnategietatik kanpoko itzaleko lan horiek ez dute indusketa zuzendariaren

postuaren ikusgarritasunik, eta maiz emakumeen esku egon dira: palinologia, sedimentologia, numismatika, osteoarkeologia... Eta errealitate hori ez da soilik Gipuzkoara mugatzen; adibide hauek guztiek Gipuzkoatik kanpoko egoera ere islatzen dute.

Gipuzkoaren kasuan, aldaketa due-la 40 urte abiatu zen. 1983an Aranzadi Zientzia Elkarteak arkeologia saila martxan jarri zuen, hainbat emakume tartean zirela. Eta hurrengo urtean, 1984an, Mertxe Urteagak Iruaxpe III haitzuloko indusketak zuzendu zituen; Gipuzkoan emakume batek lehen aldiz indusketa bat zuzentzeko baimena jaso zuen. Handik aurrera, dozenaka emakume arkeologoren izenak bildu dituzte erakusketan. Baina horrek ez du esan nahi lehenago arkeologian jardun ez zutenik, haien funtsezko lana handik aurrera, pixkanaka, ikusten hasi ginela baizik. ●

## KATAKRAK-EN DISKO BIKOITZA: HAU DENA

# Dena kabitzen ez bada ere, memoria

Erreferentzia Beyoncé izan dela esango balizute, nola geratuko zinateke? Sinets ezazu, ez da broma bat-eta. Digitalizazioaren garaian, disko gisa entzuteko pentsatuta dago Beyoncéren azken lana, eta Katakrakek horixe bera plasmatu nahi du LP bikoitzean – haien liburuetan oinarrituta sortu dituzte abestiak–. Hamar urte bete ditu espazioak, baina ez dute proiektua koiuntura horretara lotu, nahiz memoria ariketa ere izan den: “Zer da gogoratzen duguna gertatu den horretatik, eta zeri eman nahi diogu garrantzia?”.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  KATAKRAK

**G**oizeko hamarrak izateko minutu eskas faltan, azaroko astearte burusoil bat Iruñean, jendea jazarrita dago Katakraken parean dauden harrizko banku hotzetan. Zain egon behar. Pertsiana jaitsita dago oraindik, ikusten da argia barruan, eta itxaronaldia aitzakia ederra da erakusleihenari begiratu emateko: Rote Zora, biolentzia obstetrikari buruzko Nahia Alkortaren liburua, Engelsen *Etxebizitzaren Auzia* beti dator garaira, Palestinari buruzko liburuek lehen lerroa hartu dute... Pauso bat atzera eman, barruan dagoen langileak pentsa ez dezan ostatua irekitzeko presioa sartzen ari garela, hiru metro edo igo begirada, eta horra hor toldoan dagoen leloa: *Hau dena aldatu nahi genuke*. Hain justu ere, goiko gelan dagoen lelo bera da, estudio *express* hura muntatu duten lekuan dagoena, grabazioetako ehunka argazkietan ikus daitekeen gisan. Toldoa ez da berria, sorreratik-edo dago, duela hamar urtetik. Disko bikoitzaren proiektuak izen bera du kasik: *Hau dena*. Batek bai-

no gehiagok pentsatuko du zeinen orinalak diren Katakrakreko lagunak –edo Hertzainak taldearekin ezkutuko interesen bat dutela–.

Konturatzerako bete da ostatua. Ez du askorik behar izan. Eta astearte da. Jakina, gero konturatzen da bat horrelako kafe goxo eta bizkotxo ederra eskaintzeak baduela zerikusia horretan guttitan. Hori da *dena*. Bigarren gosariarekin heldu da Hedoi Etxarte barratik mahaira, eta atzetik Ion Celestino, jaka esku batean eta binilo kaxa bestean. Lau alde-tako bi binilotan eta 25 orriko libretoan islatu den proiektu handi horrek eraman gaitu elkartzera. Erreporajerako solasaldiaren galderetan sartu aurretik, Celestinok, Etxarteri begiratu eta binilo kutxa seinalatuta, “hau da definitiboa?” galdegin dio. “Bai, azkena da”. Errata bat atzeman du. Segundo bateko asperena egin, burua okertu eta irribarre gaizto bat egin dute biek. “Ez dezagun gehiago begiratu”, adostu dute. Akatsik gabe ez dago produkturik, dabilenak ondo asko daki hori...

*Hau dena* izena du proiektuak, baina sentsazioa ematen du *hau dena eta gehiago* ere izan zitekeela. Zer da *hau*? Zer da *dena*? Den-dena aldatzeko grina. Erreparatu J Martinaren abestiaren letrari: *Maitea, gure jendeak ez du ezagutzen bakea. Zer da gertatzen dena? Ezer ez duenak nahi duenean dena*. Ez da kasualitatea. Celestino: “Ez dugu pastel zati bat nahi, okindegi bat baizik. Ideia hori ibili dugu bueltaka”. Etxartek segi dio hariari: “Osoatasunaren kontzeptua, eta zer harreman daukagun horrekin, zer da *dena*... Gainera, euskaraz, *dena da guztia*, eta *dena*, aldi berean, *izan* ere bada”.

Aipatu dugu, Katakrakea heltzean ikusten den lehen leloa horixe dela, toldoan jarrita dagoena, baina gero, ostatuko barrako kartelen batean aurki daiteke *hau dena edan nahi nuke* esaldi bat, eta goi-goian, aretoaren bukaeran, toldoko lelo bera dago. Kamera analogiko baten karretearen amaieran hormako aldarria agerian geratzen zen, eta hortik proiektuari izen hori jartzearena.



Gehiegi pentsatu gabe, antza: “Daukagun zerbait da, gutxi pentsatzen dugunean okurrizten zaiguna, baina ez da eslogan korporatibo bat”.

### LIBURUEN LERROARTEAK, ABESTIRA

Hamahiru abesti eta Katakraken bi ereserki –euskaraz bata, gazteleraz bestea– biltzen ditu disko bikoitzak. Hainbat artista hainbat egunez aretotik bueltaka arituta, sortu diren gauzak oso bereziak izan direla azpimarratu du Celestinok, “bestela gertatuko ez zirenak”. Bera arduratu da grabaketaz eta horren kudeaketaz. Estetikoki aniztasun handiko abestiak daude. “Nekez irudikatzen dut *Trigger*, Maite [Arroitajaregi, *Mursego*], Beñat [Rodrigo, *Kiliki Frexko*] eta lauok lanean elkarrekin egotea kantatu berean, ez baldin bada gu laurotako baten ‘proiektu handiago’ batengatik. Ordea, Katakraken proiektua aterpe handia zenez, bazen horrelako distentsio sentsazio bat oso ederra. Gertatu diren gurutzatzeak oso

bereziak izan dira, egun horietako egunerokotasunaren barneko zerbait bezala. Zero inposatua, oso askea”.

Hau da, parte hartzaile askok haien ohiko barrutietatik kanpo jokatu dutela nabarmendu dute, desplazamendu bat egon da. Izan ere, musikari batzuk lauzpabost abestitan hartu dute parte, eta uste dute halakorik ez zela gertatuko unean bertan sortzeko eta inprobisatzeko askatasunez jardungo ez bazuten.

Etxarte: “[Joseba] Tapiak esaterako, bere grabazio egunean bukatu zuen dena, baina Tapia da gehien dagoenak: bere abestian egoteaz gain, Pirritx eta Porrotxenean eta ereserkiaren bi bertsioetan dago. Eta Areta [Senosiain] ere antzera, horietan guztietan dago eta Ibil Bedikoan ere bai, batzuetan biolin jotzen eta besteetan ahotsa jartzen. Beste adibide bat jartzearren, Amaia Espinosa: Fermin Muguruzaren abestietako koroetan dago, Kinbonboko abestien koroetan eta tabla jotzen, eta hemen, gure logistikan,

## ABESTIEN JATORRIA

Hamahiru liburu, hamahiru abesti. Proiektuaren bereizgarritasunik nabarmenena agian horixe da, Katakrek urteotan argitaratu dituen liburu jakin batzuetan oinarritu direla abestiak sortzerako orduan, eta artistak punta batekoak eta besteakoak direla, askotariko estilotoakoak, baina betiere espazioarekin noizbait harremandu direnak. Horrez gain, Katakraki ereserkiak sortu zaio: atzerriko bi abestiren melodiak moldatuta, euskaraz bata, gazteleraz bestea.

Publikatu aurretik oholtzara eramán dituzte abestiak Ibil Bedik, Raimundo el Canasterok eta J Martinak. Hurrenez hurren, hauek dira abestiak: *Anelidoak* –Rosa Luxemburgoren *Kartzelako gutunak Sophie Liebknechti* liburua oinarri–, *Madero* –Mark Neocleousen *Maderos, chusma y orden social*– eta *Zer egin behar dut orain?* –Nanni Balestriniren *Dena-dena nahi dugu*–.

Ibil Bedirenarekin batera, argia ikusten lehenbiziko kantua Los Chikos del Maíz valentziarrean izan zen: *1520 Sedwick Avenue* abestia, Dave Randallen *Sound System. El poder político de la música* liburutik sortua.

Estiloz aldatu eta krakatekoa eragiteko, hor datoz Pirritx, Porrotx eta Marimotots, haur-koro batekin, *Noren etsaiak gara?* ozen kantatzera –*Haurrek hitza* liburua hautatu dute, Lidia Txukovskaiairena–. Eta Joseba Tapia jarraian, hainbat musikaririk lagunduta, Manuel Tiagoren *Bost egun, bost gau* liburua besapean hartu.

Chill Mafiak, Mursego eta Triggerrekin batera, *Michael Kohlthass* abestia grabatu du, eta Fermin Muguruzak, bestalde, beste hainbat musikariren laguntzaz eta Angela Davisen *Emakumeak, kultura, politika* saiakera liburua leituta, *Artea fronteko lehen lerroan* abestia grabatu du. Eta azkenik, musika elektronikoaren zaletuentzat, hor tartean dira DJ Reimy eta Nakar.



ia egunero hartu du parte, jendearekin egoten, bazkariak egiten eta abar. Uste dut Barañaingo nabean ikasi genuenaren moldea dela, hau da, grabakaeta aldi berean otordu bat ere badela, edo solasaldi bat”.

Auzolanaren zentzu horrekin identifikatuta sentitzen da Celestino, musika ere horrela ulertzen duelako. “Koro batzuk grabatu, kafe bila joan eta musika ekipoa deskonektatzen lagundu gero; bakoitzak beretik ematen du asko”. Argazkiak ikusita sumatzen da giroa, grabazioetan jendea egon delako une oro, publikoa, kasu batzuetan haurrak, zakurrak eta xake-jokalaria ere bai. “Hau ez da norbait, bere etxean, barkarka, lan bat egiten sortzen”, adierazi du Etxartek proiektuaren egiteko moldeaz. “Hau da: jende asko, gauzak pentsatzen, gauzak erabakitzen, bere eremutik kanpo jarduten”. Argazkiak egiteko zilegitasuna sentitu duen orok egin ditu argazkiak, esaterako, eta horiek bildu dituzte libretoan. Orrialde horietan, artistek Katakrakek izan duten loturaren berri ere ematen dute.

### ZARRABETE BAT, INPROBISAZIOAREN ADIBIDE

Kantua egiteko enkargu bakoitzak bere erronkak izan ditu. Artista edo talde bakoitzaren arabera, agenda kontuek ematen ez zutelako kasu batzuetan, edo nahien arabera, hainbat hautu egin dituzte. Chill Mafiaren kasuan, “bizimoduagatik” diote, oso airean egon omen da haien kantua. Horren adibide, haiekin eginiko salbuespena: “Liburua esleitu zitzaizen haiei, Heinrich von Kleist-en *Michael Kohlhaas*, eta haiek ez zuten irakurri nahi, argi zioten ez zutelako egingo. Beraz, nik [Celestinok] irakurri nuen, zerbeza batzuk hartzeko geratu ginen, eta kontatu nien zeri buruz zioan liburua. Horren gainean egin zuten letra. Audio bat sartu dugu apur bat hori kontaktzen duena”.

Liburua esleitu zitzaizen arrazoi batzuegatik, bertan kontaktzen denak lotura baduelako Chil Mafiaren estiloarekin. Baina kantu horrek oinarrian duena edukitik harago doa; mamia kantuaren historiak dauka. Zarrabete baten grabazioaren gainean eraikita dago abestia,

unean bertan, grabaketaren momentuan. Zarrabetea ez da nolana hikoia, gainera: Itziar Navarro musikariak Sardinia-ko unibertsitate bateko musikologiako estudio batean grabatutako audioa da. Celestinok doinu bat egin zion, “eta beste guztia hemen grabatu zen”. Eguerdia partera hasi zen grabazioa, gauera arte luzatu, eta Chil Mafiakoen zat ohiko samarra den prozesu bat izan zen Celestinoren arabera, zerotik kantu bat egitea, lokal batean, inprobisazio handiz. “Baina ohiko lekutik kanpo; hori bazen erronka bat”.

Urtea amaitu bezala, hamar urte beteko dituzte Katakrakek eta efemeride bat idazteko balioko du *Hau dena* proiektuak. Memoriaren bataila betean bizi garen honetan, “guk erabakiko dugu zeri buruz eta nola oroitu nahi dugun” dio Etxartek. Horren adibide da gertatu zena, liburuetan kontatu dena eta Katakraken hamar urteotan gertatu dena, beste forma batzuetan hona ekartzea. Hamar urtetan gertatutakoaren memoria ariketa bat, finean, nahi denaren eta kabitzen denaren neurria. ●

Abenduak 3

# EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA



**Bilbao**



LIBURUA

# Beto parentala euskarari

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Joxe Azurmendik argitaratu duen azken liburuak hizkuntz ereduen inposizioan jarri nau pentsatzen. Ez, *Europa bezain zaharrak* ez du hezkuntzaz hitz egiten. *Jakin*-en eskutik argitaratutako liburuak Erdi Aroaren eta Errenazimentuaren arteko Europara garamatza. Besteak beste, Frantzia, Espainia, Ingalaterra, Italia eta Portugaleko arkitekturaz, literaturaz eta historiaz dihardu. Arakatu egiten du nazioa nola ulertzen zen orduan eta nola ulertzen den egun. Agerian uzten du egungo nazio-estatuaren atzean, orduko fundamentalismo kristauak bizirauten dutela sekularizatuta. Kostatzen zaizu hezkuntzarekin lotura ikustea? Jarraitu irakurtzen.

Hizkuntza ereduen hezkuntza sistema ez da euskarari jazartzen zaion beto parentala besterik. Noski, beto parentala beste zerbait izendatzeko erabilita ezagutzen dugu. Voxek eta PPK eta UPNk eta Navarra Sumak Espainia hegoaldean eta Nafarroan Skolae gisako programen aurka erabili nahi duten zentsura neurria da. "Genero ideologiaren" mamua

hauspotu eta gurasoek haurrei lotutako auzien gainean erabakitzeke luketen askatasuna aldarrikatzen dute. Espainiar progreek diote ezetz. Eskubidea ez dela gurasoena, haurrena baizik hezkuntza integral bat jasotzeko.

Hizkuntza ereduez hitz egitean Espainiar progreek eta euskal neokonek ez dituzte eskubide kontuak hain argi ikusten. Bat batean, hizkuntzari dagokionez, ez du inporta haurrek hezkuntza integral bat jasotzeko eskubidea dutela. Inporta duena da gurasoek aukeratzeko askatasuna izatea haurrek zer hizkuntzatan ikasiko duten erabakitzeke. Hau da, euskarari



EUSKONEWS

## EUROPA BEZAIN ZAHARRA

JOXE AZURMENDI


JAKIN, 2023

beto parentala jartzearen alde daude espainiar progreak eta euskal neokonek.

Jarrera horiek itxuraz dira soilik kontraesankorrak eta Joxe Azurmendiren liburuak ulertzen laguntzen digu. Liburuarekin argi gelditzen zaigu betoen atzean sekularizazioz kamuflatuta dagoela nazio-estatu europarraren izaera kristau-fundamentalista. Bada, hizkuntzen zapalkuntzari leku pribilegiatua eman zaio modernitatearen hasieratik lurraldetan zapaltzaile horren egituraketan. ●







MUSIKA

# Ondare ozpindua

IKER BARANDIARAN

**A**ze izena talde batentzat eta a ze jendilajea! Auskalo izena nondik aterako zuten! Hain justu, duela astebete taldekideetako birekin egin nuen tril, non eta Andoaingo Gazte-txearen urteurreneko jaietan, eta –orain goan ere– galdetzea ahaztu nuen.

Izan ere, han aurkitu nituen Nabarro eta Kabra, betiko izkina berean, eta ziu-rrenik Txabes, Miguel eta besteak ez ziren handik urrun ibiliko. Argi eta garbi Andoaingo Gazte-txearen paisaiaren eta ekintzen parte izan dira haiek guztiak; lehenean gaztetxo zirela, ikusten eta ikasten; eta bigarrenean ikasitakotik abiatuta sortzen eta deusezten (ji ji).

Cerdos Kompases 1990eko hamar-kadako Andoaingo taldea da, 30%, Gaizkiñe, Karkaxa eta enparauekin Andoaingo hardcore taldeen bigarren belaunaldiaren parte izan zena. Bi ahots indartsu, hitz kaletar, sinesgarri eta gordinak eta hardcorearen irakurketa

zabala bereizgarri zituen. Maketa ba-karra argitaratu zuten Jomes-ekin –no-rekin, bestela?– 1994an grabatutakoa. Eta oraingoan ere Artza anaiek, Cooperación-ek eta gerizpean gelditu nahi duten beste batzuek garaiko materiala berreskuratu, txukundu eta biniloan eta modu dotorean ekarri dute, arkeologia eta zabalkunde lan ederra eginda.

*Batxurizopa* eresiak zabaltzen du lana, hardcore-punk azkarra eta tenpo erdiak uztartuta, soberakinik eta filtrorik ez daukaten hitz borobilak ditu. *Ametsak* azkarragoa da, eta gogora ekartzen ditu RKL eta *Iturraldeko Kontxixi*. *Temblando* punk ilunagoz –eta tarteka rapeatutako ahotsez– jantzita dago. *Sombra y luz* zein *Sumas y restas*-ek hardcore metalizatuan dituzte oinak. *La noche*-k *Life...but how to live?*-ren kadentzia eta RKLren erritmo aldaketekin blaitutako hardore-punka. *Ojos negros* gitarreroa eta azkarra; eta



## BATXURIZOPA CERDOS KOMPASES

ARTZA RECORDS /  
COOPERACIÓN RECORDS

*Americio* apokalipsiko hardcore-punk ezohikoa.

Jatorrizko maketatik harago, baina, beste hainbat kantu ere berreskuratu dituzte: garai hartan euskaraz abestutako hardcore-punkaren hit-a zen *Komunik kontrol*, *Tiempos de corrupción* ilunagoa, Anestesiarekin senidetutako *Odio*, eta *Acorralado* pisutsua, besteak beste. ●

# A 3 D

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Abenduaren  
3a, egunero!

ARRIGORRIAGA  
Bizitzeko hobetu



## Bidaia existentzialista, auskalo nora

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA IKER GOZATEGI / BADON\*

**B**atzuentzat izango da jauzi *lunatiko* bat, beste batzuentzat Ipar Polara bidaia. Gutxien axola duena horixe da: nora. Ohiko eskemetatik kanpo, alkimia bat da *Badon\**, *asterisko-asterisko-asterisko*. Inboluzio bat ere bada. Opera garaikidea deitu dioten antzerki postdramatikoa, AEK-k eta Korrikak antolatutako kultur sorkuntzarako beka-  
ren irabazlea, euskal kultura eta haren kanonak –zentzu batean binarismoa ere bai– berrikusteko asmoz egindako lana. Etorkizun utopiko espekulatibo bat dakarkigute Ines Osinaga, Marina Suarez, Ainara Gurrutxaga, Oihana Vesga, Xanti Agirrezabala, Patxi Suinaga eta Itziar Garaluzek. Norberak hausnar dezala nora garamatzaten. Irundik Baionara egingo du bidaia Korrikaren lekukoak, hori ziur; esan dezakeguna da beste esfera batzuetan mugitzen dela bidaia hau.

Utopian murgildu gaituzte Azpeitiko Soreasu antzokiko bisitariok. *Itzali mugikorrak* eta ohiko betebeharrak zerrenda-

rekin batera, geure buruak ere hegaldi moduan jartzeko gonbita egin zaigu. *Irten behar duena orain irten dadila*; hori esan eta ez da inor altxa eserlekutik. Hegaldi moduan jartzeko lehen urratsa, begiak itxi eta arnasari erreparatzea. Burmuinak *hackeatu*-ko dizkigutela abisatu dute. Prestatu, beraz. Jendaratean horrela egotera ohiturik ez gaudenontzat, apur bat bortitz suerta daiteke ilunetan eta hainbat minutuz ahots bat altu aditzen eta agintzen egotea, baina ez beldurtu gehiegi, ez da luze egiten-eta. Arimak askatzeko behar dira horrelako pausak. Bidaia existentzial baterako sarbidea markatzen du hasierako *tempoak*, eta antzerkiak bere-berea duen ezaugarria ere bada ikuslegoa deseroso jartzea. Eserleku erosoak ditu Soreasuk, aurrestreinaldi honen ostean antzoki majoak beharko ditu *Badon\**-ek funtzioa ondo ezaugarritzeko, muntaia, besteak beste, handia baitu zinez. Ordu eta erdiko saio bizigarri eta atsegina izan da.

### BADON\* ANTZEZLANA

AEK ETA KORRIKA-REN  
KULTUR SORKUNTZA BEKA.

**NOIZ:** Azaroaren 23an.

**NON:** Azpeitian, Soreasun.

Opera batek berezko duen dramaturgiaren gain, bestelako baliabide garai-kideak ere uztartzen ditu proiektuak, musika elektronikoa kasu. Duen iruditeria zinez da aberatsa, egiten dituzten itzal-jokoak, erritmo demasak, eta literatur errezitaldi klasiko gisa hauteman genitzakeenak beste zerbait bihurtzen dituzte, mila eta bat buelta eman gabe.



Opera bat dela esango dizute, eta opera bat da, baina ez zentzurik klasi-koenean. Operak ez ditu zertan ohiko eskemak jarraitu. Zisneak ikusiko ditugu operan, lakurik gabe ordea. Elitismorik gabeko iruditeria duen opera bat ikusiko dugula kontatzen zuen Marina Suarezrek *Berria*-n. Elegantzia handia du *Badon\**-ek, alajaina.

Abenduaren 1ean estreinatuko da, ofizialki, Gasteizko Principal Antzokian. Donostian izango dira 17an, eta urtarrietik aurrera hiri eta herri askotan, ziur –udaletako kultur teknikiari topaleku izan zen-eta Soreasu–. ●



# Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA ENEKO BIDEGAINEN "ARGIAK MAITE EZ ZUEN GIZONA" ELEBERRIAREN PASARTE BAT IRAKURRIKO DUZU.



# Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	8		2	7	9			
	5					7		
1	2	7	4	5			6	8
8	3		7	4			1	9
7			9			5		4
9	1	4				6	3	
	7	3	8	9		4		
	4	8	6	1		3		
		1	3	2		8		6

ERRAZA


6				6				
		4	8	3				
	8			5			7	2
	5					8		4
9				4				5
1							6	
	4				9		8	
		2	7			5	4	9

ZAILA

# 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Kasa, kontura.
2. Dokumentu, txartel.
3. Adoretzu, ausart.
4. Koipea.
5. Metal noble zuri.



# Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				G	E	R	A	K
2	B				G	I	L	E
3	A	S				D	I	A
4	L	E	G				R	I
5	T	E	T	E				K
6	S	E	I	N	A			

## EBAZPENAK

ERRAZA

4	8	6	2	7	9	1	5	3
1	2	7	4	5			6	8
8	3		7	4			1	9
7			9			5		4
9	1	4				6	3	
	7	3	8	9		4		
	4	8	6	1		3		
		1	3	2		8		6

ZAILA

5	2	8	1	9	6	4	3	7
1	7	9	5	4	8	2	6	3
9	3	7	2	8	4	6	1	5
2	5	1	3	6	7	8	9	4
7	9	4	8	3	5	1	2	6
4	8	6	9	5	1	3	7	2
7	9	4	8	3	5	1	2	6
6	1	3	4	7	2	9	5	8
5	2	8	1	9	6	4	3	7

**PUZLEA:** "GOGORRA EGIN ZITZAION AITZINEKO NEGUA, ETA EZ DAKI BESTE BAT JASANEN OTE DUEN, SUPAZTERRAK LURRA BHEROTZEN DIO, BAINA BAKARTASUNAK BHEROTZEN HOZTEN."  
**5XS:** 1. KABUZ, 2. AGIRI, 3. BIPIL, 4. URINA, 5. ZILAR.  
**HIZKI BERAK:** 1. ALEGERRAK, 2. BELAGILE, 3. ASEALDIA, 4. LEGELARI, 5. TETELEAK, 6. SEINALEA.

# Alaine Agirre

ISILDUTAKOAK ALDARRI



## LITERATURA GOTORLEKU

"Paperean eskribitzen ikasi aurretik 'idazten' nuela uste dut, gehiago bizi bainintzen asmatzen nituen istorioen munduan, kanpokoan baino. Gogoan dauzkat sei urteren bueltan irakurri nuen lehen testua eta idatzi nuen lehen ipuintxo, zerbait handia bezala sentitu nituelako biak. Hortik aurrera, liburuei eta koaderno baten barruei begira bizi izan nintzen. Zaila egiten zitzaidan patioan egotea, nire adinkideekin harremantzea, kiroletan ibiltzea... eta eskolako liburutegian ezkutatzeko nintzen. Eskola orduetatik kanpo ere liburuen mundua zen nire lekuri gogokoena. Gotorlekua izan zen niretzat literatura, haize eta euri eta hotz sentitzen nuen kanpoaldetik babesteko".

## "Eraldatu egin naiz amatasuna bilatu eta ezin aurkitzearen prozesuan"

Bertzeen artean, *Odol mamituak*, *X hil da*, *Bi aldiz erditu zinen nitaz ama*, eta *Kamiso zuri zetazkoa* eleberrien eta *Txoriak etortzen ez diren lekua* poema liburuaren idazlea da Alaine Agirre (Bermeo, 1990). Isildutakoak ekartzen ditu paperera. 2021eko irailean argitaratu zuen *Karena* (Elkar, 2021). Bi urte geroago etorri da gaztelaniazkoa: *Placenta* (Tres Hermanas Libros).

✍ SAIOA BALEZTENA 📷 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### Zeintzuk izan dira zure erreferenteak?

Nahiko bakarrik egin nuen irakurketan hezteko bidea –gogoan eta bihotzean dauzkadan irakasle pare bat kenduta–, eta pena horixe daukat, ez eduki izana gaitasun literarioa garatzen lagunduko zidanik.

### Eta feminismoan?

Antzera sentitu izan dut. Barruak eskatzen zidan horrantz joatea, baina ez nuen jakin nondik hasi. *Zinegoak* batean Miquel Missé deskubritu, eta bide horretatik hasi nintzen feminismoaz irakurtzen. Transfeminismoatik sartu nintzen feminismora.

Erreferenteak joan-etorrian ibili dira, momentuan izan dudak jakin-minaren eta beharraren arabera heldu baitiet; baina denboran zehar Annie Ernauxrengana bueltatzen naiz, harritu egiten naiz ni aldatzen joan arren, zelan ez zaidan aldatzen bera irakurtzean sentitzen dudaren konplexutasuna. Bestalde, erreferente guztien izenak ez dira liburuen azaletan agertzen. Gaur egun, adibidez, nire terapeuta erreferente bat da niretzat –idealizatu barik–,

politikotasuna eta eremu pertsonala ikusteko duen moduagatik. Ogibidez haurren irakasle den lagun bat ere bada egunotako nire erreferente handia, ate asko zabaltzen ari zaidana, liburuak eta gogoetak elkarrekin partekatuta.

### Azkenaldian sarri aditu dut, mespretxuz, amatasunaren inguruko liburuen booma bizi dugula. Zer deritzozu?

Sumindu egiten nau iruzkin horrek. Amatasunaz ez dugu nahikoa hitz egiten eta idazten, baina baztertuta izan denez eta orain kuota txiki bat eman zaionez, sentsazioa dago leku gehiegi ari dela hartzen. Amatasunaren diskurto hegemoniko, idealizatu, medikalizatu eta gizonek preskribatutakoarekin nazkatuta gaude, hori egia da, baina amatasun pluralak diren ozeano ia amaigabe horretaz apenas dakigu ezer. Eta begira zenbat kolore eta tenperaturatako ur korranteak dauden itsaso batean. Amatasunak gure gorputzetatik eta ahotzetatik kontatu behar ditugu, gure bizipenekin bat ez datozenak ere entzunez.



"Nazkatu naiz bata zuriaren atzean ezkututzen diren eta pertsoneri baino gehiago DSM-Vari begiratzen dioten psikiatrak, psikologoak eta bestelako 'profesionalak' entzuteaz".

### Azaldtu sakonago, faborez.

Ez zaizkit interesatzen kanpotik barrura, ustezko "adituen" eta beren ustezko "neutraltasunetik" datozen diskurtso patologizatzaila, paternalista, zigortzaile eta presioz betetakoak. Antzera gertatzen zait neurodibergentziarekin. Nazkatu naiz bata zuriaren atzean ezkututzen diren eta pertsoneri baino gehiago DSM-Vari begiratzen dioten psikiatrak, psikologoak eta bestelako "profesionalak" entzuteaz: autismoaz ez dut *benetan* ikasi lehenengo pertsonako testigantzak eta autisten kolektiboko aldarriak entzun ditudan arte.

### Zuk isiltzen direnetan duzu interesa...

Bai, bilatu gabe horra joaten zait begirada, seguruenik ez doakidalako ondo konbentzioen azalean gelditzea. Eta behin tabuak biluzten hasita, zergatik ez biluztu benetan? Esaterako, laguntza bidezko ugalketa teknikez hitz egiten badugu, ez dugu horretara dedikatzen den enpresa batek autobus markesinetako propagandan jartzen dituen esaldi eta irudiekin egingo. Edo bilatu gabeko abortuaz hitz egiten badugu, ez dezagun

egin "beste bat izango duzu" eta "zerbaitengatik izango zen" bezalako klixeeekin.

### Nola eragiten du gai horiek tabu izateak emakumeen osasun mentalean?

Osasunean oro har eragiten du -zeren, berez, bereizi genezake osasun mentala fisikotik?-, tabuak bezainbat prozesuak berak. Nola eta zenbateraino? Ez dakit esaten, neuri ere nola eta zenbateraino eragin didan esan ezingo nizukeen bezala; jakin badakidan arren maila askotan, sakonera handian, bizitzako eremu guztietan eta luzaroan eragin didala. Kendu egin dit, baina eman ere bai, eta, batez ere, eraldatu egin naiz amatasuna bilatu eta ezin aurkitzearen prozesuan. Saihes-tu eziniko bizi-prozesu eta -ikaskuntza bat izan da niretzat. Hori bai, beste gauza bat da prozesu hori, zu garai batean ardatzen zaituena, isilpean eraman behar izatea, bakarrik zaudela sentitzea, erreferenterik ez izatea zeure burua ulertzen lagunduko dizunik, erruaren pisua eta lotsaren likatsutasuna soinetik ezin kentzea... Prozesua bera naturala da, zeharkatu eta norberak idatzi beharrekoa; prozesua biltzen duen tabua, aldiz, kultu-

rala da, eta sufrimendu handia jartzen du prozesuaren gainean, eta hori zaintzatik trantsitatzeari biziki oztapatzen du.

### Sistemak behar bezala artatzen ditu amatasunak?

Argi eta garbi, ez. Eta neure hitzetan baino argiago ikus daiteke Erika Lagomak eta Estitxu Fernandezek idatzitako *M* liburuan, Nahia Alkortaren *Mi parto robado*-n, Diana Oliverren *Maternidades precarias*-en, eta beste askoren hitzetan: Ibone Olza, Esther Vivas...

### Oraindik irakurri ez duenari, zergatik gomendatzen diozu *Karena*?

*Karena*-n minaren dialogoa dago. Eta galdarak egite bat, eta norberaren erantzunen bila ibiltzea. Amatasunaren presio sozialaren eta pertsonaiaren desioaren arteko elkarrizketa ere badago, ulertu ahal izateko noraino den ama izateko nahia "norberarena", eta zenbateraino kulturak kutsatua. Bizi prozesu bat kontaktzen du eleberriak, eta nahiko nuke irakurlea eroan bidaia horretan, protagonistaren barruko paisaiak erakutsiz bidaia irari. Isiltzen direnak xuxurlatuz, batzuetan are aldarri eginez ere. ●

# Urkullu, Pradales, Black Friday

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**M**erke, oso merke, are merkeago, erdiprezioan: egunak beharko nituzke joan den astean Black Friday-rekin lotuta iritsi zitzaizkidan e-mail guztiak ezabatzeko. Ez dudanez lan hori hartzeko batere intentziorik, sekularo pagotxen iragarpenak bata bestearen azpian sedimentatzen joango dira mezu berriak iritsi ahala, gure garaiak planteatzen dizkigun galdera filosofiko handi bihurturik. Izan ere, programa informatiko batek erabaki du, segur aski, eskaintza zehatz horiek niri bidaltzea, han eta hemen klik eginez uzten dudatu-parrastaren gurutzaketa turboalgoritmiko baten bitartez. Inork bidali ez dituen mezuak dira, beraz; eta inork ez ditu irakurriko. Orduan –jarri Kandido Urangaren ahotsa eta musika epiko bat ondorengo irakurtzeko–, existitzen al dira mezu horiek benetan?

Asuntuari erantzuna bilatzen pasako duzun denbora baino gutxiago behar izan du EAJk, zasta, lehendakari bat osorik meriendatzeko: noizbait jakingo da zer pasa den kamerinoetan Iñigo Urkullu hurrengo hauteskundeetako eszenatokira ez ateratzeko. Egia da kontuak ez zeukala itxura onik azkenaldian –urrian Japoniatik Itxaso Atutxari bota zion ez-tenak pistaren bat ematen zuen–, baina hala ere, joan den ostiralean zabaldutako filtrazio baten ondotik gauzek hartu duten belozidadeak jo eta ma utzi ditu bost sabinologotik lau.

Alonsotegiko politikariari ez diote utzi –edo ez du nahi izan– agurra erabaki pertsonal gisa aurkezten ere. Ez agerraldi instituzionalik, ez solemnitaterik; nik zer dakit: biolinak, malkoak, goiasmo pixka bat. Youtubeko publizitate bat balitz bezala saltatutako tramitearen itxura hartu diot. Black-Black Friday: 40 urtez



alderdijan iñarkun ia denetan, orain artezkari, gero goizpargile, bihotz eta arima hari opaltzen... eta buruinduko zaituztela dioen deikuna izparringian ikusi behar, lau txindiko norbait bazina legez.

Egonkortasuna aipatuko da Urkulluren urteak gogora ekartzean. Konkreteki, pelikula irandar bateko hemezortzi minutuko plano finko horietako baten antza izan zuela garai honek. Aspergarria, esango duzu. Bai, ossso. Baina azken hitza gaiaz ulertzen dutenen esku dagoenez, Kiarostami bada norbait zinema munduan eta Urkulluk karguan hamabi urte beteta utziko du Ajuria Enea. Jeltzaleek jakin zuten irakurtzen Euskal Erdiko boto-emaile askok *chill out* politiko pixka bat behar zuela gatazkaren *techno* gogorraren ondoren, zuri eta beltz gehiegiren ondoren grisa zela kolorea, eta ohiko bisnesak dekoratzeko

ez zela lexikoan irudimen-inbertsio handirik behar ere: “estatus politiko berria”, “nazio forala” eta duela gutxi formulatutako “konbentzio konstituzionala” izan dira tramankulu kontzeptual inportanteenetako batzuk. Alegia, deus ez.

Soropilera aitaren eginda salto egin duen Imanol Pradalesekin berrikuntza saltzea da kontua, *ma non troppo*, ez baita ahaztu behar hemengo hautesleez ari garela, alegia, zozoak zozoari kantatu behar diola. Norbait gazteteagoa, perfil teknokrata eta –hau da datu inportantea– santurtziarra: Neguriko prentsan dagoeneko hasi dira kontaktzen esfortzuari esker goraino iritsi den Mamari-gako langile-kastako gaztearena. Black Friday elektorala, EAJk euskal barrialismoaren alorrean egin ditzakeen eskaintzak: adi, izan ere, hor bada merkaturik. ●

**Abendutik aurrera**

bi astelehenean behin ARGIA  
eta plataforma guztietan

Oraingoan bertsoa  
albora utzita...  
beno, ez erabat :)

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)



Euskaraz amets egin,  
ikasi, idatzi, lan egin,  
maitemindu, jolastu,  
gozatu, sentitu...  
**zu zeu izan Kutxabanken  
ere, bizi euskaraz.**

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.  
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.



Abenduak 3.  
Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:  
[www.kutxabank.eus](http://www.kutxabank.eus)